

EUSKAL DANTZA ESKOLAN Folklore Eskolara Euskal Dantzaren Bidez

Gerardo Sienra, Amaia Zengotita-Bengoia

La actual Reforma aspira a incluir en los currículos escolares autonómicos, contenidos que ofrezcan al alumnado la oportunidad de aprender lo que le es propio a su entorno socio-cultural, ayudándole a sentirse partícipe del mismo.

Nuestra intención es trasladar al profesorado la razón por la cual pensamos en la Danza Vasca como en un contenido cultural que posibilita desde el área de Educación Física acercar al alumnado al conocimiento de la Sociedad Vasca al tiempo que le oferta un instrumento de integración en ella.

Contenidos culturales como las danzas y los coros cantados eran aprendidos en el entorno familiar pero en la actualidad esta vía de transmisión se está perdiendo, por lo que corresponde a la escuela asumir la transmisión de este patrimonio cultural. Sin embargo ningún área parece asumir esta responsabilidad y el resultado es que su presencia en los centros escolares es escasa, tal y como lo refleja un sondeo realizado a raíz de esta ponencia entre el alumnado de la comunidad autónoma.

Los profesores y profesoras de Educación Física, por nuestra parte, somos tendentes a seleccionar deportes antes que danzas por considerarlas más afines a otras áreas curriculares y en especial a música. Sin embargo el mundo de las danzas ofrece un ámbito de trabajo corporal que ayuda a cubrir una serie de contenidos y vivencias educativas que el mundo del deporte no alcanza a cubrir. Con esto queremos significar que una de las riquezas de la Educación Física está en la gran cantidad de matices de especificidad que aportan las diferentes categorías de situaciones motrices que lejos de ser excluyentes se complementan en un enfoque educativo en el que la diversidad de situaciones motrices de distinto signo es enriquecedora y deseable.

En la ponencia que a continuación se presenta Mulada "Euskal Dantza Eskolan" se reflexiona sobre sus posibilidades educativas, argumentando con solidez las distintas razones por las cuales podemos llegar, a través de esta actividad, a ofrecer en los diferentes ciclos y etapas educativas un planteamiento didáctico globalizador.

Adelantamos, a continuación, algunas de las razones que la ponencia contempla al aconsejar la inclusión de las Danzas Vascas dentro del proyecto educativo de centro y en su defecto dentro del área de Educación Física.

*Es un tipo de actividad que desarrolla el ritmo ayudando a organizar el medio sonoro y la capacidad de secuenciar el movimiento.

*Es un tipo de actividad que posibilita la movilidad corporal a través de los pasos y desplazamientos favoreciendo el conocimiento y control corporal.

*Son actividades que favorecen el tratamiento de la diversidad al posibilitar la utilización de múltiples formas de organización del grupo clase favoreciendo la relación entre sus miembros y la participación equitativa.

*La necesidad de material no es problemática en un número elevado y significativo de danzas, y en ciertos casos el material específico y complementario puede elaborarse en los talleres de manualidades.

*Ofrecen una buena razón para poner en marcha una directriz de interdisciplinaridad curricular al aportar un amplio engranaje de contenidos conceptuales, de procedimientos y de actitudes, valores y normas pertenecientes a las áreas de sociales, música, plástica y educación física y en lo que a esta última se refiere al bloque expresivo comunicativo que suele ser el menos desarrollado por el profesorado en general.

*Son actividades que evidencian un gran potencial dentro del marco socio-cultural en que esta inserta el centro escolar.


*Posibilita dar a conocer nuevas formas de actividad física que el alumnado puede continuar practicando fuera del horario escolar.

Despertar el gusto por las Danzas Vascas en las escuelas es una tarea en principio sencilla en tanto que disponen de un buen nivel de motivación entre el alumnado, el reto es para el profesorado que desde su conocimiento teórico y práctico debe ser capaz de presentarlas de forma sugerente.

MARKO TEORIKOA

Folklore hitzak hitzez-hitz "Herri Jakintza" esan nahi du ("folk" eta "lore", aintzinako ingeles hitzak). Orokorrean hitz horren bidez Herri baten *ohizko sinezkizun, sinezkeri, eskulan ohitura eta adierazpide multzoa* izendatzen dugu. Baita ere lehen aipatutako aspektu guztien ikerketarako erabiltzen da.

Euskaldunok Herri bat osatzen dugula, hau da, berezko kultura bat daukagula inork ez dugu ukatzen. Hala ere, espaniar kulturaren aspaldidaniko eraginagatik eta gaur egun gero ta gehiago zabaltzen ari den kultur kosmopolitismoa dela eta gure kulturaren aspektu asko galdu ditugu, eta beste askotan ikusle ezjakitunaren papera betetzera behartuta gaude.



Aurkezten dugun lan honetan Euskal Folklorea berrindar-tzeko proiektu bat diseinatzen edo aurkezten ahaleginduko gara, eta horretarako Euskal Dantza hartuko dugu abiapuntu-tzat, *Euskal Dantzak adierazpide folkloriko gehienekin erlazioak ezar ditzakelako* eta, beraz, Folklorearen arlo ezberdinetan zehar mugitzeko bide egokia izan daitelakelako.

1. DANTZA EUSKAL HERRIAN


1.1. Folklore dantza eta koreografia folklorikoaren arteko bereizketa

Euskal Dantza Taldeen saioetan dantza ezberdin, musika eta jantzi ugari ikusi eta entzuteko aukera izaten dugu. Ez dezagun pentsa, baina, guzti hori Euskal Folklorea dugunik, eta ez genuke era berean neurtu behar. Nolabait sinplifikatzeko, dantza hauek hiru taldetan bana ditzakegu:

1.1.1. Benetazko Dantza Folklorikoak

Historikoki giza, kultura eta geografia zehatz bati lotuta daudenak, eta urteetan zehar beraien aurkezpena, forma, sinbologia eta protokoloari dagokiona, behintzat, aldatu gabe mantendu dena.

Kasu batzuetan dantza giroa edo hasiera zentzua galdu dute, baina *beraien forman ez dute aldaketa nabarmenik izan* (Adibideak: Dantzari Dantza, Brokel Dantza, Saragi Dantza, Erregelak, Maskaradak, Kalbalkadak, Otsagi, Pipaon, Kortes, Jolas Dantzak,...).




Ezinezkoa da jakitea dantza hauen sorrera data edota koreografia eraiki zutenak, beraz, herri hortako *Dantza Herriko* izendatzen ditugu, herri hortako *Dantza Autoktonoak*,

1.1.2. Koreografia folklorikoak

Koreografia Folkloriko izendatuko ditugun dantzek *sorre-rra berri samarra izaten dute eta ohitura historikoa eta ingurune geografiko/kulturalik gabekoak dira*. Sustrai artifizialdun dantzak dira, koreografo batek sortutakoak, gehienetan Dantza

FOLKLORE DANTZA




Autokonoetan erabilitako mugimendu, pauso, erritmo, musika eta janzkeretan oinarriturik (Adibideak: Ibarzabal Arku Dantza, Nesken Sagar Dantza, Kontrapas, Eusko Dantza, Kaskarot, Mendirik mendi...).



Transmisio mailan, zaila izaten da dantza hauek hasieran sortu ziren bezala mantentzea, Dantza Folklorikoen protokolo eta tradizio iraunkorra falta bait zaie eta koreografiaren ikasketak prozesuak aldatuta eta moldaketa txikiak egiteko baimena ematen bait du.

1.1.3. Moldaketa folklorikoak

Dantza hauek ere berri samarrak izanik, *bi eratako jatorria izaten dute*: Alde batetik, ingurune edo tradizio batetan izandako dantza baten galerak sortzen duen hutsunea bete nahian, dantza horri buruz gordetako datuetan oinarriturik dantza horren antzekoa montatzea. Bestetik, gaur egun itxura batez bizirik dagoen dantza bat baldintza berezi batzuetara egokitzeko birmoldatzea.



Aipatutako jatorriak erizpide gisa harturik bi Moldaketa Folklorikoz mintza daiteke:

— **Berregiketa Folklorikoak**: ia gutxirarte dantzaren batez ornitzen zen ohitura giroa osotzeko asmoz sortzen dira.

Sortze prozesu honetarako desagertu ez diren dantzari buruzko datuak biltzen dira lehenengo: musika, inguratzen zuen protokoloa, ordena, pasuak, tresnak...

Ondoren muntatze prozesua dator, eta horretarako gordetako datuen hutsuneak inguruan edo tradizio mota berberetan ezagutzen diren dantzetako elementuak erabiltzen dira. Emaitza, inguru, herri eta ohitura horretarako dantza egokia berreskuratzea izan behar da (Adibideak: Jaurrieta, Eguzki Dantza, Altsasuko Momotxorroen Dantza, iribaseko ingurutxo...)

— Egokitze Folklorikoak:

Sustrai folkloriko sendoak dauzkaten dantzen artean multzo bat nabarmentzen da: Lehen bakarrik gizonetzkoak izanik, emakumeentzat egokitu edo moldatu diren dantzak.

Egokitze honen zergatia bi errealidade edo egoera ezberdinen ondorioz sortu ohi da: Alde batetik, Euskal Herriko Folklorean emakumeak ez du leku gehiegirik izan, eta hau dela eta XX. mendean zehar gatazka handia sortu da emakumea kultur arlo guztietan murgiltzen hasi delako, eta noski, ez du Euskal Folkloretik kanpo geratu nahi izan. Beste alde batetik eta batez ere nekazal inguruetan, biztanle kopuruak izu-

gari murriztu dira eta honek ekarritako gizonetzkoen eskaziak kolokan jarri du dantzak bere jatorrizko izakeran (gizonetzkoek egina) mantentzeko posibilitatea.

Azaldu dugun lehenengo errealidadeari aurre egiteko agertutako modu batetaz gorago idatzi dugu: Koreografia Folklorikoen sorrera. Egokitze Folklorikoak bigarren forma bat izango lirakeke, eta honek azaldutako bi egoerei aurre egin die: Emakumeak Tradizio Folklorikoan gizonetzkoek zegozkien paperak eta dantzak betetzen eta burutzen hasi ziren, aintzina Gizon-Dantza batzu mixtoak edo emakumezkoak bihurtuz, gizon ezagatik (Adibideak: Zieko-ko Dantzak, lekorako Kate-Dantza, Zuberoako Maskaradak, Biazteriko Dantzak...) edo emakumezkoek egokitzeko moldaketa koreografikoak txertatuz (Adibideak: Behe Nafarroako Jauziak, Gipuztar Zinta Dantza, Uztai Handi Dantza...).

Esku tartean dagokigun proiektu honetarako, koreografiak kanpo utzi ditugu, inguru geografiko-kultural baten faltan egonik zailagoa bait da Hezkuntz Proiektuarekiko globalizazio lana. Gainera, dauzkagun Dantza Folklorikoak behar adina dira gure asmoak betetzeko eta, beste alde batetik, Hezkuntzaren helburuetan gure ondare kulturalaren mantenimendua eta transmisioa agertzen dira, eta ez ondare kulturala asmatzea.

1.2. Euskal dantzen ikasketa prozesua, antzina eta gaur egun

Lehen esan dugunez, Dantza Folklorikoaren ezaugarriak aipagarriena bere kokapena da, beti ingurune bati lotuta: Ospakizun erlijiosoak, jentil erroten aztarnak, urtaro zikloak, jai ospakizunak, gizarte harremanak... Dantzen Ikaskuntza ere ezberdina izaten zen, bakoitzaren inguruaren arauera.

Dantza zailenak eta erritualenak familiaretan ikasten ziren. Herriko famili guzti edo gehienek ezagutzen edo parte hartzen zuten tradizioetan, eta Dantzaren transmisioa, etxe barruan hasi egiten zen belaunaldiz belaunaldi. *Geroago ikasketak osatzen ziren, kofradia edo konparsi baten partaide izanik, edota behin eta berriro ekintza berdinetan ekinda*: Hauzolanak, erromeriak, ezkontzak, lagunarteko solasaldiak, dirubilketak...

Ikasteko modu hau ia desagerturik dago gaur egun, kultur ingurua ere aldatu egin bait da: Tradizioak eta ohiturak eraldatu edo desagertzen dira; familiaren partaidetza gutxitu egiten da, gaur eguneko familiaren egiturak ez du batere errazten belaunaldiz belaunaldiko irakasketa; dibertitzeko eta harremanetarako era berriak agertzen dira; Dantza Folklorikoaren balorapena edo garrantzia gutxituz doa...

Horiek horrela direla eta, Folklorearen ezagutza eta irakaskuntzaren ardura antolatutako talde batzuren esku geratzen da, baina honen gordetze lana eta zabalkuntza herriaren zati txiki batengana heltzen da bakarrik.


Egoera honetan, eta salbuespen gutxi batzu izan ezik, dantzen ezagutza eta transmisioa gutxi batzuz egongo litzateke: Dantza Taldeetako partaideak, Dantza Taldeetan antolatutako ikastaroetako partaideak edo ekintza extraeskolarrak bezala Dantza duten eskoletako ikasleak. Ikasleen artean egindako inkesta baten arauera gaur egun Folklorearekin umeez sarriago daukaten harremana herriko jaietan eta hauzoko ospakizunetan gertatzen da, kontaktuen % 66an; sendiak oso gutxitan da Folklore ohizko transmititzailea, % 8an (% 72an inoiz ez), Eskolak % 22an egiten duen bitartean.

Gaur egungo irakaskuntza prozesu berri honekin, nahiz eta dantzen iraupena Dantza Taldeei esker zihurtatu, Dantza gizartearen gutxiengo batentzat geratzen da. Gehiengoak ez

du dantzarik ezagutzen eta ezin du Euskal Ohizko Kultur giro-
etan aktiboki murgildu, horrela Euskal Kulturaren arlo honen
izaera herrikoa edo popularra galduz.

Arazoi guzti hauengatik eta bestalde, Eskolak lehen
famiarik betetzen zituen funtzio asko betetzen dituzenez (ira-
kaskuntza-ikaskuntza arloan), ondorio hau ateratu dugu: *Euskal
Folklorearen oinarriko ezagutza eta Euskal Kulturaren ezau-
garriak Gizartean era zabal batean mantenduko direla zihurt-
zateke. erarik hoberena Eskoletako Hezkuntza Proiektuan
sartzea litzateke, era honetan eskola adinean dauden ikasle
guztiengana helduz.*

%	INOIZ EZ GUTXITAN	BATZUTAN	NAHIKOTAN	ASKOTAN	GUZTIA	
TELEBISTA	11%	36%	25%	19%	9%	100%
HAUZOA	16%	22%	16%	19%	27%	100%
IKASTETXEA	47%	21%	10%	10%	12%	100%
SENDIA	72%	23%	15%	13%	13%	100%
	36%	23%	15%	13%	13%	100%




Aipatutako lehenengo kausak bi erraznamendu ekartzen
dizkigu burura:

Lehengoa, Folkloreari buruzko jakineza haundia dela,
euskal dantzen gehiengoa gizonezkoena izan delako edo
emakumei bigarren mailako papera utzi delako.

Bigarrena, Ikasleen artean sakonki sartuta dagoela
sexuaren arauerako ekintzen banaketa. Egoera honen aurre-
an Eskolaren parte hartzea Oinarriko Hezkuntza Proiektuak
eskatzan du, hau da, ohizko ondare kulturalaren ezagutzari
eta hezkidetzari buruzko helburuak.

Aipatutako bigarren kausak beste erraznamendu bat
sortzen digu:

Arlo batzuetan teorikoegiak dira, eta, beraz, ikasleentzako
aspergarriak. Ikasleek aipatutakoak kontutan harturik: Natura,
Gizartea (ingurunearen ezaguera) eta Euskara; hain zuzen ere
Folklorearekin erlazionatzeko egokienetarikoa direla ikusten
dugu. Ez al daiteke Folklore ekintza arlo hauetan eduki prakti-
koak eta motibatzaileak sartzeko bide egokia izan?



2. FOLKLOREA GAURKO ESKOLAN

2.1. Folklorearekiko jarrerak

Folklorearen egoera Eskolan aztertzeko dantza erabili
dugu tresna bezala, ikasleek folklore ekintzen artean errezen
ezagun dezaketena hori dela eta. *Dantzaren ezagutza eta
transmisioari* buruz ikasleen artean egindako inkesta baten
arauerako eskolen % 68an ez da inoiz edo oso gutxitan Euskal
Dantza agertzen edo irakasten, eskolen % 22an bakarrik nahi-
ko sarri edo askotan irakasten edo agertzen den bitartean.
Hau da, bost eskolarik batetan gutxi gorabehera daukate ikas-
leek Folklorearekiko harremana.

Emaitza horiek ez datoz ikasteko gogoia adierazten dute-
nekin bat: ikasleen % 77ak Euskal Dantzak ikasi nahi izango
litzateke eta horietarik % 84ak eskolan irakatsi beharko liratekela
uste du, hauetarik % 73ari klase ordutegiaren barnean egitea
gustatuko litzaioke. Azkenengo iritzi hauen artean bi kausa
nabarmenak dira: Alde batetik, horrela ikasle guztiok ikasiko
litzatekela, eta bestetik, aspergarriak egiten zaizkien zenbait
arlotan (Natur, Gizartea, Euskara...) denbora murrizteko asmoa.

Emaitzak sakonago aztertzen baditugu, Dantza ikasteri
ezetza ematen dioten gehienak mutilak direla ikusten dugu
(ezetza % 80), dantzak neskeentzako gauza direla edo tre-
beak ez direla uste dutelako.

2.2. Folklore eta eskola gaur egun

Folkloreari buruzko jakineza oso zabaldurik dagoela
aipatu dugu. Horren zergatia eta ondorio zuzena Eskolan
dagoen Folklorearen falta izango litzateke. *Ez dugu Folklore
orokorrean Eskolan sartzeko esperientzi sistematizaturik* eza-
gutuzten, Folklorearekin zerikusia daukaten zenbait ekintza
(Olentzero, Santa Ageda, Ihauleriak...) eskola askotan presta-
tzen dira, baina gehienetan ekintza hutsa izanik, beraien ingur-
uan sor eta bete daitezkeen kultur eta giza edukiak ukitu gabe.

Bilbo-aldean Euskal Dantzaren ikasketa sistematizatzeko
esperientzi bat dago aspaldidanik martxan. "Euskal Dantzarien
Biltzarra"-ren zuzendaritza teknikopean eta udal diru-lagun-
taz, nahi duten Eskola Publiko guztietan Euskal Dantza ira-
kaste da, extraeskolargisa eta ikasleen partaidetza borondatezko
delarik. Esperientzi honek urte askotan iraun izan du, eta nahi izan
duten ikasleei Dantza Herrikoiak ikaste-
ko, trebatzeko eta antolatzen diren zenbait jaialdietan agertze-
ko aukera eman die.

Hala ere, gure ustez, eredu hau ez litzateke Folklore
Eskolan sartzeko baliogarria izango, eduki pedagogiko gabe-
koa delako, gehien baten dantzatzen irakastea mugatzen dela-
ko eta eskola hoietako ikasleen gehiengora heltzen ez delako.

Folklores Eskolarekin harremanetan jartzeko beste expe-
rientzi bat Dantza Talde baten partaidetza datza. Eskola ba-

tzuek beraien Dantza Talde iraukorra edo inguruko Dantza Talde baten kooperazioa daukate, eta honek Folklorearen kalidade eta baliabide gehiagorik lantzeko oinarriak ezkeintzen ditu, hala ere, esperientzi mota hau ere extraeskolarra izaten da, nahi duten ikasleentzat eta Hezkuntz Proiektuaren eduki eta Helburuekin globalizatu gabea.

Guk aurkeztuko dugun proiektu hau Deustuko Ikastolan Folklore arloan saiatutako zenbait esperientziaren azterketaren ondorioa da, Ikastolan programaketa zehatza eta sistematizaturik gabe hasi ziren ekintza folkloriko batzuek pixkanaka-pixkanaka Hezkuntz Erreformaren bidean doazen Unidate Didaktiko garatzen ari dira-eta.

Zalantzarik ez daukagu eskola batzutan isolaturik egon daitezkeen beste esperientziak badaudela, Folklorearen eta Eskola elkartzeko saiatzen direnak, Esperientzi hauek biltzea, aberastea, hobetzea eta beste eskoletara zabaltzeak Folklorearen Eskolarako barmatzea errez dezake,

Lan honetan Folklorearen Eskola sartzeko proiektu zabal bat aurkeztu dugu. *Ez dugu proiektu hau Eskolan aplikatzea eskatzen, Folklorearen Eskolan sar daitekeelaren ideia frogatzea baizik.* Eskatzen duguna, Hezkuntz Proiektuak bere helburua eta edukietan exijitzen duen bezala, eskola guztietan Folkloreari buruzko esperientziaren bat burutzea da.

EUSKAL DANTZA ETA FOLKLOREA HEZKUNTZ PROIEKTUAN

1. EUSKAL DANTZAREN EGOKITASUNA HEZKUNTZ PROIEKTURAKO

Hezkuntz Proiektuaren helburuak eta Euskal Dantzaren helburu hoiak lortzeko eskeintzen diren aukerak aztertuz, *Euskal Dantzaren baliagarritasuna Eskolarako tresna bezala nabaria da.*

1.1. Lortu nahi den pertsona ereduaren arloak lantzeko egokitasuna

Hezkuntz Proiektuaren Helburuak aztertzen baditugu, errez ikusiko dugu hauetariko asko *Folklorearen lanketaren bidez bete litezkeela:*

Lehen Hezkuntzaren helburu orokorretan:

* Norbere gorputza ezagutu eta preziatu eta bere garapenera lagundu, osasun eta ongizaleazturak hartu eta portara jakin batzuek osasunean eta bizikaltatean dituzten eraginak baloratuz.

* Autonomiaz jokatu ohizko ihardueretan eta taldeari dagozkionetan, ekimenak izateko ahalbideak garatuz eta harreman afektiboak ezarri.

* Talde-iharduerak planifikatzen eta burutzen parte hartu, demokratikoki ezartzen diren arauak eta erregelak onartu, norbere interesak eta helburuak artikulatu taldeko beste kideekin, ikuspuntu guztiak errespetatuz, eta dagozkien erantzunkizunak asumitu.

* Harreman orekatu eta eraikitzaileak ezarri, gizarte-egoera aitortutako pertsonekin, era solidarioan jokatzuz, gizamaila, sexu, arraza, sineste eta beste ezaugarri individual eta sozialetan oinarrituriko bereizketak baztertuz,

* Ingurune natural eta sozialeko gertakari eta fenomenoak ulertu eta beraien artean harremanak ezarri eta ahal den neurrian aktiboki parte hartu ingurugiroa babesten, kontserbatzen eta hobetzen.

* *Kultur ondarea ezagutu eta hartaz gozatu, bere kontserbatzen eta hobetzen parte hartu eta Kultur eta Hizkuntza aniztasuna errespetatu herrien eta banakoen eskubide gisa, eskubide horren ariketarekiko interes eta errespetozko jarrera garatuz.*

* Adierazpen berbal, gorputzezko, bisual, plastiko, musikal eta matematikazko bitartekoen bidez komunikatu, sensibilitate estetikoak, sormena eta obra eta artemanifestazioez gozatzeko gaitasuna garatuz.

Bigarren Hezkuntzaren helburu orokorretan:

* Norbere gorputzaren funtzionamendu eta egintza eta erabaki pertsonaletatik norbanakoaren eta taldearen osasunerako datozen ondorioen oinarriko alderdiak ezagutu eta ulertu, eta ariketa fisikoa, higieena, janaritze orekatua eta bizimodu osasungarria egitearen... mesedeak baloratu.

* Norbere buruaren, bere ezaugarri eta ahaltsunen irudi doitu eratu eta prestakuntza autonomo eta orekatuzko iharduerak garatu, ahalegina eta zailtasunak gaitziteza baloratuz.

* Beste pertsona batzuekin harremanetan sartu eta talde-eraketan parte hartu harreraren solidario eta tolerantzerekin, inibizio eta aurreritza gabe eta arraza, sexua, gizarte-klasea, sineste eta beste ezaugarri individual eta sozialengatiko edozein bereizkeria-mota baztertuz.

* *Kultur ondarea ezagutu, preziatu eta gozatu eta berori kontserbatzen eta hobetzen aktiboki lagundu, hizkuntza eta Kultur aniztasuna Herrien eta norbanakoen eskubide bezala ulertuz, eta eskubide hortaz baliatzearen aurrean interes eta errespetozko jarrera bat garatu.*

* *Egokitasunez, autonomiaz eta sormenez mezuak ulertu eta ekoiztu, zeinetan kode artistiko, zientifiko eta teknikoak erabiliko baitiren, beren komunikazio-ahalbideak aberasteko eta hauen erabilera parte hartzen duten prozesuei buruzko gogoeta bat burutzeko helburuz.*

* *Gure Tradizio eta Kultur ondoreko sineste, jarrera eta oinarri-balioak ezagutu, kritikoki baloratu eta pertsona bezala garape integrala hobekien bultzatzen duten aukerak hautatu.*

1.2. Euskal Herriarekiko identifikaziorako egokitasuna

Daukagun errealitatea eta ingurunea Euskal Herria da, beraz, *Euskal Herriak duen kultur bereizitasunetan oinarriturik gure eskoletarako diseinatuko diren Hezkuntz Proiektuen barnean Euskal Kulturaren oinarriak landu behar dira.* Betebehar hori betetzeko orduan *Folkloreari (ohiturak, tradizioak, abestiak, dantzak, musikak, pertsonaiak...) leku garrantzitsu bat derrigorrez utzi behar diogu.* Gure ustez, Euskal Dantza izan daiteke abiapuntua Folkloreari eskoletako atea zabaltzeko, Dantzaren inguruan kasu askotan beste iharduera folklorikoak integra daitezketala.

1.3. Zehar lerroak lantzeko egokitasuna

Hezkuntz Proiektuak zehar lerro batzuek kontutan hartzea eta lantzea exijitzen digu: Sexu-berdintasunerako Hezkuntza, Giza Eskubide eta Bake Hezkuntza, Osasun Hezkuntza, Kontsumo Hezkuntza, Gizarte-Komunikabide Hezkuntza, Bide Hezkuntza.

Oinarriko curriculumaren disenuan argi adierazten da lerro hauek Eskolan sartzeko beharra, eta ondorio honetara iristen da: hauek ez direla gai edo ikasarlo berriak bihurtu behar, curriculum guztiari izaera emango dioten printzipio didaktiko baizik. Edozein curriculum-elementurekiko erabakiak hartzekotan beti kontutan hartu izan behar duen dimen-

tsio bezala. Baita ere azpimarkatzen da Ikastetxean programatutako iharduera ludikoak, kulturalak, kirolezkoak, edukin zehar handikoak direla.

Folklorearen irakaskuntzak, lehenaitatutako ihardueren ezaugarri guztiak betetzen dituela eta osatzen duten edukiak Hezkuntz Arlo ezberdinetan globalizatu ahal dituela kontutan hartzen badugu, *Zehar lerroak Eskolan lantzeko egokia den tresna batez ari garela konturatuko gara.*

1.4. Hezkuntz proiektuaren globalizatorako egokitasuna

Hezkuntz Proiektuaren kurrikulunak globalak izatea eskatzen zaigu, hau da, gaiak aztertzeko arlo ezberdinetan zehar edukiak zabaltzea.

Proiektu honen asmoa Dantzatik hasita Folklore edo Ohizko Kulturaren ezagutza batetara heldu nahi da. Folklorearen ekintza multidisziplinari orokor bat bezala uler daiteke, bizitzaren arlo ezberdinekin zerkusia dauka eta kultur manifestaren guztietan agertzen da. Honetan oinarriturik Folklorearen ezagutza arlo gehienetan garatu dezakegu Gizarte Zientziak eta Ingurunearen ezagutza, Arte Hezkuntza, Musika, Hizkuntzak, Gorputz Hezkuntza, Teknologia, Erlijioa...

2. NON SARTU EUSKAL FOLKLOREA HEZKUNTZ PROIEKTUAN

Folklorearen Eskolako Hezkuntz Proiektuan landu nahi baldin bada arlo askotan egin daiteke, era eta sakontasun maila oso ezberdinak erabiliz, *Folklorearen barnean kokatzen diren edukiaren aniztasunak programaketa malguaren erretzen duelako.*

Proiektu honetan Folklorearen ezagutza Euskal Dantzan oinarrituko dugu, bi aspektutan oinarriturik:

—Dantza bat ikasteko prozesuak bere denbora behar du, batzutan osolaburra eta besteetan luzea. Folklorearen munduan sartzen diren beste eduki kontzeptualak eta beste osagarriak ezagutzeko edo ikasteko prozesuak konparatiboki laburragoak izaten dira.


Ikasteko behar den denboraren ezberdintasun honetan oinarriturik, eta horrek Dantza eta bere inguruan mugitu eta aztertu behar diren eduki folklorikoen bereganatze prozesuan sor dezaken desfasea alendu nahirik, *guk Folklorearen Eskolan zabaltzeko prozesua ondorengo eran ikusten dugu:* Ariketa fisikoa den dantza baten ikasketaz Gorputz Hezkuntza arloan hasi eta dantza hau ikasleak menperatzen doazen batera eduki folkloriko osagarriak beste Hezkuntz Arloetan gehituz jarraitu, dantzaren menperatze prozesua eta edukiak jabetzeko prozesua batera eta desfaserik sortu gabe amaitu daitezkeen.

— Dantzatzeak suposatzen dituen ikasleen arteko jolas harremana, mugimendua eta eritimoaren praktikotasunak duten *erakartasuna hasierako motibatzaile bezala erabilitea.* Izaera fisikoludiko honetatik hasita arlo askotako elementu teorikoak sartuz jarrai daiteke, Folklorearen ezagutza orokor bat lortzea helburu nagusizat jarritz.

Proiektu honetan, izaera fisikoludiko horri Eskolan bilatu ahal zaizkion paralelismoetan oinarriturik, Dantza Eskolan sartzeko bide nagusi bezala Gorputz Hezkuntza hartuko genuke, eta Dantzaren inguruan dauden ingurune, Folklor eta Kultur elkar-erlazioak osatzeko, beste zenbait arlotan (Gizarte, Musika, Euskara, Arte hezkuntza...) globalizazio le- roak zabalduko genituzke.

Tradizionalki, eskola guztietan Gorputz Hezkuntzaren helburuak kirolaren bidez betetzen ohi dira. Gainera kirolaz mintzaterakoan beti aipatzen da Eskolan kirol eskaintza

FOLKLORE DANTZA



zabala erakutsi behar dela, ikasleak bere ezagutzak zabaldu eta gustokoak edo dituen trebetasunetarekiko egokien diren kirol modalidadeak aukeratu ahal izan ditzan.

Proiektu honek kirolaren bakartasun hori aurre egin nahi dio, gure ustez kirola ez da bide bakarra Gorputz Hezkuntzaren helburuak betetzeko. Dantzan gorputza eta mugimendua ekintzaren oinarriko ardatzak direla printzipioz hartzen badugu Gorputz Hezkuntzaren oinarriko ardatz berberaz mintzatzen ari garela konturatuko gara, are gehiago, *Kirolak Hezkuntz Baliabide bezala dituen ezaugarriak Dantzari gonbaratzen badizkiogu, Dantzaren egokitasunaz oharatuko gara.*


Alde batetik, Derrigorrezko Hezkuntzan Kirolak Hezkuntz Ekintza egokia bihurtzeko errespetatu behar dituen baldintzak Dantzak bete ditzakelako:

—**Partehartze zabalduna izatea**, hau da, partehartzea ezin izango da ezarri trebetasun maila, sexu edo beste edozein diskriminazio eritziaren araueru.

—**Azkenengo helburuak mugimenduzkoak bakarrik ez izatea**, Hezkuntzaren Helburu Orokorretan agertzen diren guztiak baizik (ezagutze gaitasunak, pertsonaren oreka, pertsonarteko erlazioak, partehartzea, integrazioa....).

—**Hartutako planteiamenduak ez daitezela bakarrik ekintzaren emaitzetan** (irabazi / galdu) oinarritu, baizik eta lortu nahi diren Hezkuntz helburuetan.

Beste alde batetik, Gorputz Hezkuntzaren Curriculumean gorputz mugimenduari ezartzen zaizkion funtzioak Dantzari ere aplikatu ahal zaizkiolako:



EZAGUERAZKOA: Mugimendua pertsonaren funtsezko ezaguera tresnetariko bat den heinean, bai bere burua ezagutzeko eta bai bere hurbileko ingurua arakatu eta egituratzeko.

ESTETIKA ETA ADIERAZPENEZKOA: Mugitzen an diren gorputzak adierazi egiten du, baina gainera, gorputz adierazpenaren eta beste zenbait adierazpen teknikaren bitartez, mugimenduzko azalpenak estetikoki egituratuagoak izan daitezke.

KONPENTSAZIOZKOA: Mugimenduak inguruaren murriztapenak eta egungo gizartearen ohizko sedentarisismoa konpentsatzen dituen heinean.

KOMUNIKAZIO ETA HARREMANEZKOA: Pertsonak bizitzaren etapa guztietan bere gorputza eta gorputz mugimendua neste pertsona batzurekin harremanak izateko erabiltzen dituen heinean.

HIGIENEZKOA: Norberaren osasuna eta sasoi iraun erazi eta hobetzeari eta gaisotasun eta disfuntzio jakin batzuri aurre hartzeari buruzkoa.

AGONISTISKOA: Pertsonak gorputz mugimenduaren bitartez bere ahalbideak frogatu, lehiatu eta zailtasunak gaindi ditzakeen neurrian.

KATARTIKOA ETA HEDONISTA: Pertsonak, gorputz ariketaren bitartez, tentsioak astindu, aisi iharduerak egin eta, gainera, euren mugimenduaz eta gorputz ahalbideez gozatzaren diren heinean.

ANATOMIKOFUNTZIONALA: Norberaren mugimenduzko ahalmena mugimenduaren bidez hobetuz eta handituz egotea desberdinetan eta helburu eta iharduera desberdinetarako.

Eta azkenez, Euskal Herriko dantzek, unidate didaktiko antolaketa ardatz bezala, Lehen Hezkuntzarako arloko oinarriko eduki antolatzaile guztiak eta Bigarren Hezkuntzarakoetarik asko lantzeko aukera eskeintzen dute.

LEHEN HEZKUNTZA:

1. GORPUTZA, IRUDIA ETA PERTZEPTZIOA (PROZEDURAK)

* Gorputz egituraren ezagupena:

- Mugimendu globalen eta segmentazioen erabilpena; aldika eta batera.
- Artikulazioen erabilpena.
- Tentsio eta lasaiketaren erabilpena, maila ezberdinetan, atalka zein osatasunean.
- Postura egokien gordeketa, gorputzaren ardatz bertikalaren kontzientzia eta kontrola hobetuz.

* Espazioaren perzeptzioa:

- Norberarengandik kanpoko bereziak diren oinarri bezela hartutako puntuekin harremanak ezartzea eskatzen duten mugimenduen erabilpena.

* Denboraren perzeptzioa:

- Mugimendu sekuentziarik ordena eta iraupenaren esperimendua eta erabilpena.
- Egitura erritmikoekiko identifikazioa eta moldaketa (egokipena).

* Espazioaren perzeptzioa denborarekiko:

- Beste pertsona edo gauzek deskribaturiko traiektoia eta abiadura ezberdinetara moldaketak egitea eskatzen duten mugimenduen erabilpena.

2. TREBETASUNAK (PROZEDURAK)

* Koordinaketa ahalmenaren erabilpena:

- Mugimenduen lotura eta oldarren transmisioa.
- Mugimendu sekuentzia batetan harreman eta banaketaren erabilpena.

* Oreka gaitasunaren erabilpena:

- Bira, salto eta abarren ondoren berrorekatzeko gaitasunaren erabilpena.
- Oinarri txikidun objektuen gainean orekaren gordeketa.

* Dantzan oinarriko trebetasunen erabilpena:

- Desplazamenduak, birak eta saltoak.

* Egokitze fisikoa:

- Erresistentzia, malgotasuna, indarra eta abiaduraren bultzaketa.

3. ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA (PROZEDURAK)

* Gorputzaren adierazpen baliabideen erabilpena.

* Sekuentzia erritmikoekiko mugimenduen moldaketa.

* Ohizko dantza errezen buruketa: taldekoak, bikotean dantzatzekoak eta banakakoak.

4. JOLASA (PROZEDURAK)

- * Elkarlanaren oinarriko estratejiaren erabilpena.
- * Talde egoerarako jolasak antolatzeko arauen erabilpena.

BIGARREN HEZKUNTZA

1. EGOERA FISIKOA (PROZEDURAK)

- * **Beroketa**
 - Prestakuntza orokorretik egin behar dantzak eskatzen duen prestakuntza berezira.
- * **Gaitasun Fisikoak:**
 - Garapen prozesuak erabiliaz, gaitasun ezberdinen estimulazioa.
- * **Egoera Fisikoaren mantenua eta garapena:**
 - Dantzarako behar diren trebetasunen arauerako mugimenduzko ekintza.

2. MUGIMENDUZKO GAITASUNAK. BANAKAKO JOLAS ETA KIROLAK

- * **Koordinaketa aniztunak.**
- * **Oreka-egoerarako mugimendu koordinatuak.**
- * **Mugimenduak egiterako malgotasuna, arintasuna, zehaztasuna.**
- * **Tresneria eta objetuen erabilpen trebea.**
- * **Ikasi beharreko dantzen tekniken ikasketa.**

3. TALDEKAKO JOLASAK ETA KIROLAK

- * **Elkarlana egiteko tekniken erabilpena.**

4. GORPUTZ ADIERAZPIDETZA

- * **Dantzak eskeintzen dituen banakako eta taldekako espazio eta denboran gorputzaren elementu adierazkorren ikerketa eta erabilpena.**
 - Ekintzarako espazioarekiko norabidearen egokipena.
 - Dantzaren erritmo egituretaren mugimenduen egokipena.
- * **Ikasi eta praktikatu behar diren dantzatze teknika berezien bereganaketa eta saiaketa.**

NOLA SARTU EUSKAL FOLKLOREA HEZKUNTZ PROIEKTUAN

1. SEKUENTZIALIZAZIOA

1.1. Sekuentziatze erizpideak

Proiektu honetan eskola bakoitzean landuko diren dantzak aukeratzeko eta sekuentziatzekoan erizpide ezberdinak izan beharko ditugu kontutan:

1.1.1. Heldutasun motorea

Adin ezberdinetako gaitasunak kontutan harturik, *dantzen motore zailtasunak eta betebeharrak progresiboki handituz doaz*, pertsona bakoitzaren gaitasunen arauera garatzen diren jolas dantzetatik hasita talde oso baten mugimendu zehatz eta bateratuak exijitu arte.

1.1.2. Ikasleen garapen psikologikoa

Adin bakoitzerako gustokoak izan daitezkeen dantzak aukeratzeko saiari gara, ikasteko arreta gutxien eskatzen

dutenekin hasi eta gero eta arreta gehiago eskatzen dutenekin jarraituz, ikasleen ahalmenen garapena kontutan izanik: Jolas ximpleen izaera ludikoa, arau konplikatuagoak errespetatzea, talde disziplina onartzea, sexu ezberdinen arteko harremana...

1.1.3. Guztion partaitzea, giza dantzen preferentzia

Erabiliko ditugun Euskal Dantzak aukeratzekoan preferentzia eman nahi izan diegu giza dantzei, hots, erromerietan eta jaietan *jende osoari partehartzea eskeintzen diotenei*, gehienetan bakoitzaren gaitasuna muga bihurtu gabe.

Gainera, dantza hauen bidez, eskolan ikasitako kalean praktikan jartzeko aukera gehiago egon daitezke, Euskal Folklorea mantentzen laguntzen den batera.

Bestelako dantzak ere agertzen dira proiektuan, Euskal Dantzak bere osotasunean ezagutu behar direlako eta baita ere Hezkuntz Proiektuan agertzen diren arlo batzuetarako lantzeko aproposak direlako.

1.1.4. Ikas prozesuaren erreztasuna

Lehenago aipatutako motrizitate eta garapen psikologikoa alde batera utzirik, lan egiteko dagoen denbora ere faktore garrantzitsua izaten da dantza bat ikasteko eta irakasteko orduan, are gehiago taldeka egiten denean. Proiektu hau praktikan jartzeko denbora murriztua izangoenez, *denbora gutxitan ikasteko moduko dantza errezak* aukeratu ditugu, bi helburu lortzeko asmotan: Ikasle guztiek dantza ikas dezaten eta bere ihardueraren fruituak laster ikusterakoan ikasleen satisfakzioa lortzea.

1.1.5. Beharrezko materialeak lortzeko erreztasuna

Euskal Dantza batzuetan, nahiz eta ikasteko egokiak izan, erabili beharreko materialek ugaria edota garestia izaten da. Horregatik, proiektu honen aplikazioa errezteko *aukeratu ditugun dantzetan ia ez da materialerik behar, edo errez aurkitzeko edo ordezkatzeko da.*

Eskola bakoitzaren baliabideen arauera dantza zerrenda aldatu eta aberastu liteke.

1.1.6. Aniztasuna, Euskal Herriko Lurralde guztietako dantzak egotea

Euskal Kulturaren aniztasuna eta batasuna ulertzeko, eta ikasketen beste arlo batzuekin lantzeko *Euskal Herriko lurralde guztietako dantzak* agertzen dira proposatutako zerrendan. Hala ere, lurralde bakoitzak bere dantzak bereziki landu beharko lituzke, bakoitzaren inguruneari errezago hurbiltzeko, beraz, proposatutako hainbat dantza herrialde bakoitzean dagoen eta baliagarria zaigun beste dantzaren batez ordezkatu daiteke.

1.1.7. Hezkidetza (koedukazioa)

Euskal Dantza gehienak gizonezkoentzat direlarik, proiektu honetarako neskeentzako egokiak direnak aukeratzeko saiari gara, hala ere, gizonezkoenak bakarrik diren dantza batzuetan agertzen dira. Kasu hauetan *neskek ere ikasi behar dituzte, baina beti argi eukirik, tradizioaren arauera kalean gizonezkoek egiten dituztela.*

1.1.8. Eskolak proiektuaren garapenera emandako denbora

Guk aurkeztutako proiektu hau Folklores Hezkuntzan integratzeko ideia eta eredu orokor baten multzoa da, besterik ez. *Eskola bakoitzak berak nahi duen proiektua zehaztu beharko du: ezaugarri bereziak, sakontasun maila, landuko duten arloak, emango zaion denbora,,*

Sortuko diren proiektu zehatz hauen artean ezberdintasun handiak agertuko dira, batez ere Dantzaren ingurutik garatzen diren eduki eta ekintza egiteari eta eskola bakoitzaren nortasunari dagokionak.

Eskola bakoitzak aukeratu behar duen dantza zerrenda eraikitzerakoan faktore hauek hartu behar ditu kontutan, eta batez ere, Dantza ikasteko emango den denboran oinarriturik, dantza gehiago edo gutxiago aukeratu.

1.2. Proposatutako dantzak

1.2.1. Proposatutako ziklokako banaketa

LEHEN HEZKUNTZA:

LEHENENGO ZIKLOA:

1ngo.a. JOLAS DANTZAK: KATADERA DANTZA, ZARTAIN DANTZA, SASKITO DANTZA, OILAR JOKOA, ESKU DANTZA...

2.a. JOLAS DANTZAK: XAN PETRIKE DANTZA, ZARTAIN DANTZA, TXAKOLIN... "AGATE DEUNA" UNIDADE DIDAKTIKOAREN MUNTAKETA ETA ANTZEZPENA.

BIGARREN ZIKLOA:

1ngo.a. JOLAS ANTZAK: BIZAR DANTZA, PASA DANTZA... JAUZIAK:

ZAZPI JAUZIAK, AITZINA PIKA...

2.a. TXULALAI, BERAKO MAKIL DANTZAK, OSTALE-
RRAK... "JOLAS

DANTZAK" UNIDADE DIDAKTIKOAREN MUNTAKETA
ETA ANTZEZPENA.

HIRUGARREN ZIKLOA:

1ngo.a. KUARTANGOKO TRINIDADE DANTZA (JOTA),
BIRIBILKETA, OLAGUEKO ESKU DANTZA...

2.a. BAZTANGO ZORTZIKOA, JOTA, ARINARIN...
"LANTZEKO IHAUTERIA" UNIDADE DIDAKTIKOAREN
MUNTAKETA ETA ANTZEZPENA.

BIGARREN HEZKUNTZA:

LEHENENGO ZIKLOA:

1ngo.a. IURRETAKO GORULARIAK: ARKU DANTZA ETA
DOMINGILOA, MAHAI GAINEKOA, LANESTOSAKO UZTAI
DANTZA...

2.a. IURRETAKO TXOTXONGILOA, LAPURDIKO MAKIL
DANTZA, MARKINAKO SARAGI DANTZA... "OLENTZERO"
UNIDADE DIDAKTIKOAREN MUNTAKETA ETA ANTZEZPE-
NA, ESKOLAKO TXIKIENTZAT.

BIGARREN ZIKLOA:

1ngo.a. OTSAGIKO PAÑUELO DANTZA, GIPUZKOAKO
BOASTITZEA, ISATS DANTZA, AZERI DANTZA, KONTRA-
DANTZAK...

2.a. AURRESKUA (ESKUZ ALDATZEKO SOINUA), BEHE
NAFARROAKO KONTRADANTZAK, MARTXAK... "EUSKAL
JAIA, ERRROMERIA, ERAKUSKETA" UNIDADE DIDAKTIKOA-
REN MUNTAKETA ETA BURUKETA.

Dantzen zerrenda eta banaketa hau aurkeztu eta propo-
satu ondoren, sekuentzializazioa eta programazioari buruzko
zehaztasun batzu azaldu behar ditugu:

Aukeratutako dantzetan *ikasmaila ezberdinen arteko lotu-
ra bat bilatu nahi izan dugu*, hau da, aurreko urtean ikasitakoa

hurrengorako oinarria izan dadila. Hala ere, ezaugarri motore-
ei dagokienez, maila bakoitzerako aukeratutako dantzak
aurrekoak jakin gabe ikasteko modukoak dira.

Ikasmaila batzuetan besteetan baino dantza gehiago edo
gutxiago agertzen dira, dantza bakoitza ikasteko behar izaten
den denboraren arauera. Dena dela, *ikastetxe bakoitzak dan-
tza kopuruak aldatu eta zehaztu beharko lituzke*, ikasmaila
bakoitzean Euskal Dantzaren Ikasketari eskeini nahi zaion
denboraren arauera edota ikasleek eta irakasleek euki ahal
duten dantzen ezagupenaren arauera.

Zerrenda horretan agertutako dantza guztiak ez dira
behin ere errepikatzen, hala ere, eskolan aplikatu eta irakas-
terakoan, *aurreko urteetan ikasitako dantzei (batez ere giza
dantzei) ikasturte guztietan berpraktikatzeko, trebatzeko eta
ondo finkatzeko denbora bat eskeini behar* zaie. Bestela ahaz-
tu egingo dira edo ez dute inoiz kalean egiten ausartzeko
beharrezko den seguridade maila lortuko.

Euskal Folklore oso aberatsa da dantzetan. Guk dantza
zerrenda hau aurkeztu dugu, baina badago beste hainbat
dantza, ezaugarri berdinak edo antzekoak dituztenak eta ikas-
teko modukoak, Eskola bakoitzak bere curriculunean sartuko
diren dantzak aukeratzekoan *bere lurraldearen Folklorearen
berezitasunei garrantzi handia eman behar die*, nahiz eta
lurralde guztietako dantzak ikusi.

1.2.2. Dantzen Deskribapena

Dantza bakoitzaren deskribapena hasi baino lehenago bi
multzo edo kontzeptu handitan ezberdinduko ditugu, geroago
errezago ulertzeko:

— **Dantza Irekiak.** Herriko erromerietan edo ta jendearen
dibertsiorako dantzatzekoa direnak. Ez dute dantzari kopuru
zehatzik mugatzen eta gehienetan norberaren interpretatzeko
inprobisazioari askatasun handia ematen diote. Indibidualismoari
protagonismoa ematen diote.

— **Dantza Hertsiak.** Egitura edo formazio eta dantzari
kopuru zehatza daukate, dantzan bakoitza taldearen barnean
bere papera betetzen du eta dantzaren betebeharrak zehazki
jarraitu behar ditu. Dantzarien indibidualismoa taldearen bar-
nean desagertzen da.

KATADERA DANTZA eta ZARTAIN DANTZA

Biak dantza irekiak dira, aulkien jolasaren bi bariante dira
(gehiago ere badago).

Katadera dantzarik errezena eta ezagunena ondorengoa
da dantzari kopurua den baino aulki bat gutxiago jartzen da
zirkunferentzian, dantzariak inguruan dantza egin behar dute,
jotzen den musikaren erritmoa bakoitzak nahi duen bezala
jarraituz, musika bapatean ebakitzen da eta dantzariak aulkia
lortu behar dute, aulkirik gabe geratzen dena kanpora doa
aulki bat eramaten duelarik. Jokua dantzari bakar bat geratze-
an amaitzen da.

Zartain dantzan ere aulkia dantzariak baino bat gutxiago
dira. Dantzari batek zartain zikin bat darama eskuan, dantza-
riek musikaren erritmoaz aulkien inguruan dantza egiten dute
zartainduak "jarri" ohikatu arte orduan berehala eseri behar
dute. Zutik geratzen den dantzariak zartainduaren aurrean
belaunikatu behar du eta besteak, belauri katuaren burua zapi
batez ezkatatu ondoren, aurpegia zikinduko dio zartainaz.
Ondoren galtzaileak zartaina hartzen du eta jokuak jarraitzen
du, jokaldi bakoitzean zartainduaren papera galtzaileen arte-
an aldatzen delarik.

SASKITO DANTZA

Dantza ireki honetan dantzariak beraien oreka-trebetasuna eta erritmoa erakutsi behar dute. Egurrezko saskito txiki baten gainean (antzina garaua neurtzeko erabiltzen zen neurria) dantzariak banan banan dantzatu behar izango dute musika edo abesti ("aldapeko") ezagun baten erritmoa jarraituz, helburua ahalik eta trebetasun gehien erakutsiz musika amaitu arte jauzi gabe irautea izaten da.

OILAR JOKOA

Oilar joko ugari dago Euskal Herrian. Bertsiorik errezena ondorengoa izan daiteke: Puntu batetan oilo bat lurperatzen da burua bakarrik agerian dagoelarik (edo egur batetan oilo buru bat edo bere irudia jartzen da), parte hartzailearen begiak estaltzen dira eta ezpata bat ematen zaio. Parte hartzailea desnorabidetu ondoren joko hasten da: ezpatadunak oiloa kokatu eta burua ezpataz kendu behar dio. Jendea laguntzen edo nahasten ahalegintzen da, perkusio musika bat parte hartzailearen ondoan doa, bere erritmoaz oiloaren hurbiltasuna adieraz diezaiokelarik.

BIZKAR DANTZA (XAN PETRIKE DANTZA, JEAN PETIT QUI DANCE)

Dantza ireki honetan dantzariak zirkunferentzia bat osatzen dute. Koreografiak bi zati dauzka. Lehenengoan dantza urrats batzu ("kontrapasa" izenekoaren antzekoa, kriskitinak eginaz eta hiru bira) egiten dira eta gero lurra ukitzen da hiru aldiz oin punta bakoitzaz bere erritmoa jarraituz, bira batez amaitzeko. Biraren ondoren behin eta berriz hasten da, baina bigarren zatiari aldi bakoitzean gorputzaren beste zati bat batzen zaio: 1goa. oin puntak, 2.a hatz puntak, 3.a belarriak, 4.a ukondoak, 5.a aldakak, 6.a sorbaldak eta 7.a belarriak. Azkenengoan bira egin beharrean zirkunferentziaren erdirantz txilipurdiko bat egiten da.

ZAPATAIN DANTZA

Dantza ireki hau zirkunferentzian dantzatzeko da, Koreografiaren lehenengo zatian urrats batzu egiten dira ("erdizkak" edo ta "doblak") eta bigarreanean zapatagilearen lana erritmoa jarraituz eta abestuz antzesten da, koreografia hau hainbat aldiz errepikatzen da.

TXAKOLIN

Dantza ireki honetan dantzariak bere oreka eta erritmo trebetasuna erakutsi behar dute. Lurrean bi makil luze gurutzatuz eginez kokatzen dira. Dantzariak musika edo abestiaren erritmoa galdu gabe dantzatu behar du makilen artean gurutzatuz apurtu gabe eta ahalik eta dantza trebetasun gehien erakutsiz.

ESKU DANTZA (Baztan)

Dantza ireki honetan dantzariak bikoteka eta hilaratan egiten dute dantza. Musikaren erritmoa jarraituz txaloak eman behar dira postura ezberdinez, akatsik gabe eta aurreko dantzariarekin koordinatuz. Musika behin eta berriro errepikatzen da, baina gero eta arinago (edo astiroago), dantzarien trebetasuna probatuz.

PASA DANTZA

Dantza honetan dantzarien salto egiteko trebetasunak lehiatzen du. Dantzari batek parte hartzen duen bitartean beste lauk gerrikoak eutsi behar dituzte, gerrikoak gurutzatuz forman jartzen dira eta dantzaria zutik jartzen da hankatarrean gurutzatuz geratzen zaioelarik. Musikak bi zati dauzka, lehenengoan gerrikoak altxatzen dira (gutxigorabehera eskutada bat musika bakoitzeko) eta bigarreanean dantzariak sei salto egin

behar ditu, hankak gurutzatuz libre dauden laurdenetara pasatuz (hiru salto norabide bakoitzeko). Gerrikoen gurutzatze gero eta altuago dagoenez helduko da momentu bat dantzariak ezin izango duela pasatu, orduan lehenbaitlehen gerrikoetatik ateratzen ahalegindu beharko du, beste lau dantzariak gerrikoak bapatean altxatuz bera harrapatzen eta zintzilikatzen ahaleginduko direlako.

ZAZPI JAUZIAK

Dantza ireki hau Jauzien sendikoa da eta lurraldeen arauerako forma ezberdinak aurkezten ditu. Zirkunferentzian dantzatzeko da eta bi zati dauzka: Lehenengoan oinez egindako urrats batzu burutzen dira eta bigarreanean saltoak. Musika zazpi aldiz errepikatzen da, lehenengo zatia beti berdina da baina bigarreanean aldi bakoitzeko salto bat gehiago batzen da, zazpi osatu arte. Lurralde batzuetan saltoen zailtasuna oinen entrelazatu batzuen bidez handiagotzen da.

TXULALAI

Dantza ireki hau zirkunferentzian dantzatzeko da, jatorriz neska eta mutilen bikoteekin. Dantzak hiru zati dauzka: Lehenengoan partaideek korruan bira ematen dute norabide bietan erritmoari jarraituz; Bigarreanean, geldirik leku batean, dantzariak erritmoari jarraituz hanka bat eta besoak batera eta elkarloturik altxatzen dituzte; Hirugarrenean dantzariak bikoteka tope egiten dute aldakaz, alde batera eta bestera, gero berriz hasieratik errepikatzeko (normalean dena bi edo hiru aldiz errepikatzen da).

BERAKO MAKIL DANTZAK

Dantza hertsiki hauek egiteko laukoteak behar dira, bi hileratan jarri. Bederatzi makil dantzaren multzoa da. Hanken mugimenduekin koordinatzen diren besoz egindako makil jotze ugari dago.

JAUZIAK (ZAZPI JAUZI, AITZINA PIKA, OSTALERRAK...)

Jauziak zirkulu bat osatuz dantzatzeko diren giza dantzak dira. Eskualdeka forma ezberdinak aurkezten dituzte, baina beti urrats finko batzuren konbinaketaz osatzen dira.

KUARTANGOKO TRINAIDADE DANTZA

Giza dantza honek bi zati *oso nabarmen dauzka batetan* biribilketa bat osatu eta zirkuluan dantzatzeko da norabide bietan, bigarreanean neskek eta mutilek elkarri jota labur bat dantzatzeko diote txandakatzen eta azkenik biak batera.

BIRIBILKETA

Giza dantza honetan dantzariak kate bat osatzen dute eta erritmoa jarraituz forma ezberdinak burutzen dituzte, aurreko eta azkenengo dantzariari jarraituz.

IURRETAKO GORULARIAK

Bi dantzatako multzoa, oso ezberdinak. Lehenengoan bi hileretan eta arku bana eskuetan, dantzariak figura eta postu aldaketa batzu egiten dituzte. Bigarrena zinta dantza bat da, dantzariak erritmoa jarraituz zintak txirikordatu eta berriro askatzen dituzte. Dantza hauekin batera gorularien lanak antzesten ohi dira, neskek eta mutilek lan egiten dute bertso batzu abesten dituzten batera.

OLAGUEKO ESKU DANTZA

Dantza hau jota berezi bat da. Dantzariak jota dantzatzeko duten batera esku joko bat elkar egiten dute, bikoteka.

BAZTANGO ZORTZIKOA

Dantza hau jatorriz mutil dantza bat zen. Zirkuluan dantzatzeko da kontrapasaren antzeko urrats bat eta alde bietara

egiten diren biraketengabe konbinatuz. Dantza berak Xan Petrike dantzarekin zerukusia handia dauka.

JOTA, ARINARIN

Erromerietan hain zabaldurik dauden bi dantza hauek oso antzekoak dira. Biak urrats batzuren nahasketaz burutzen dira, dantzariak nahi duen eran, erritmoa galdu gabe eta bueltak bere momentuetan emanez. Inprobisazioak protagonismo handia hartzen du. Baita ere bikoteka edo taldeka dantza daiteke, guztiek urrats berberak eginez.

MAHAI GAINEKOA

Dantza hau mahai luze baten gainean egiten da. Dantzariak bata bestearen ondoren igotzen dira banaka dantzazera. Dantzak bi zati ditu:

lehenengoan dantzariak aurrera eta atzera egiten du, kontrapasa eta gibelkaren antzeko pausoak erabiliz; bigarrean dagoen dantzaria eta hurrengoa nahaiaren gainean elkartzen dira jota bat eginez, jotaren azkenengo pausoa bertan da eta besteak jarraitzen du, bere dantzaldiari hasiera emanez.

LANESTOSAKO UZTAI DANTZA

Gizonezko dantza honetan dantzariak bi hileretan kokatzen dira, taldearen aurrean buruzagi edo gidari bat jartzeko delarik. Hain artean 2 m.tako luzera duten uztaien bidez kateatzen dira eta kaleetan zehar aurrera eta atzera doaz, postu aldaketa eta figura ezberdinak osatuz. Prozesio dantza bat da.

BOASTITZEA

Dantza hertsia da. Zortzi edo hamabi dantzari eta buruzagi batek osatutako taldeak egiten du dantza, dantzariak bi hileretan eta buruzagia hauen aurrean. Dantza hanka joku berdina behin eta berriro errepikatuz, eta aurrera eta atzera desplazatuz burutzen da, simetrikoki. Neskek zein mutilek dantza dezakete (jatorriz mutil dantza zen), neskek egiten dutenean besoen mugimenduz laguntzen dute dantza, eskuetan zapiak daramatzatelarik.

ISATS DANTZA, AZERI DANTZA

Jolas dantza irekiak dira. Trebezia, oreka, malgotasuina, erresistentzi, irudimena eta antzespina frogan jartzen dira. Dantzariak hilerak bat osatzen dute, eta, elkarri helduta, lehenengoan egiten dituen mugimendu guztiak errepikatu behar dituzte, musikaren erritmoa jarraituz.

Erratzen diren dantzariak hileraren iehenengoak emandako zigorra (eskobaz edo gerrikoz emandako kolpe edo ipurdiakoaren bat) jasotzen dute, dantza eten gabe.

BEHENAFARROAKO MARTXAK

Dantza irekiak dira. Kalejira eran era biltzen dira. Dantzariak bi hilerak paralelotan doaz eta aurrean daukaten bikotetarekiko mugimendu simetrikoak egiten dituzte, zehaztutako pauso edo urrats batzuekin konbinatuz (kontrapasa, gibelka, antrexatak...).

KONTRADANTZAK

Dantza irekia, erromerietakoa. Dantzariak bi bikotez osatutako koadriletan elkartzen dira, elkarren aurrean jarririk mugimendu eta koreografia ezberdinak egiten dituzte, bikotez aldatua. Koreografia bere hiruren bat aldiz errepikatzen da.

BIZAR DANTZA

Antzespenean dantza bat da, Bi dantzari hartzen dute parte, baina batek bakarrik dantza egin. Dantzariak bizarginaren papera betetzen du eta besteak bezeroarena. Musikaren

erritmoa jarraituz dantzariak bizarginaren lana antzesten du, ironia eta humoreaz bezeroari sufriarazten.

Inprobisazioak eta antzespenean protagonismoa osoa daukate.

2. FOLKLORE ESKOLAN SARTZEKO PROIEKTU ERE-DUAREN GARAPENA

2.1. Proposatutako helburuak

Proiektu honen helburu nagusia *Hezkuntza proiektuak Euskal Herriaren ondare kulturalari buruz irakasleoi markatzen dizkigun helburuak betetzen laguntzea da*. Horretarako ez dugu programazio zehatz eta hertsia bat emango, ez diogu horri benetazko baliogarrtasuna ikusten, *Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza proiektua eta curriculumak pertsonalitatez garatu behar dituelako*, eta gure helburua nagusia, hain zuzen ere, lan horretan aplikatu daitezkeen zerbait ideia eskaintzea da, irakaslearen esku utzita aplikatzeko erizpideak, sakontasun mailak eta edukien kantitatea.

Puntu honetan Folklorearen inguruan garatu, erlazionatu edo globalizatu daitezkeen helburu eta edukien zerrenda batzuek aurkeztuko dizkizuegu, eta baita ere, Dantzatik hasita egin daitezkeen globalizatzeko lanetarik eredu batzuek, irakasleok curriculumak eta programaketak egiterakoan interesatzen zaizkizuenak erabil ditzazuen.

2.1.1. Proiektuaren helburu orokorrak

* Euskal Ohizko Kulturaren ezaugarri eta agerraldi garrantzitsuenak ezagutzea. Oinarrizko folklore hiztegi erabilgarri bat menperatzea.

* Euskal Dantza Herrikoiak parte hartzen duten kaleko ospakizunetan aktiboki parte hartzeko gaitasuna bereganatzea. Inguruan ospatzen ohi diren Herri-Kultur ekintzetan (Olentzero, Ihauteriak...) partaide aktiboa izateko ohitura bereganatzea.

* Pertsona euskaldunaren herri nortasuna sendotzea. Gure Kultura eta Folklorearekiko errespetoaz eta norberak bere mantenuan eragile positiboa izan daitekelaz jabetzea.

* Euskal Herriko ezagupen sozio-geografiko-kultural orokor bat lortzea. Euskal Kulturaren ezberdintasun-bereizgarri aniztasuna ulertzea eta guztiona bezalako onartzea.

* Bapateko eta planifikazioa behar duten kultur ekintzetan eragile aktibo eta sortzaile bezala parte hartzea. Kirolez gain, ikasleei ekintza kulturaletan parte hartzeko aukera ematea.

* Publiko baten aurrean fisikoki agertzeko eta espresatzeko lotsa edo inhibizioa gainditzea.

* Euskal janzkeraren ezaugarrien ezagutza orokor bat bereganatzea. Neskek eta mutilek sexu bien jantziak ezagutzea eta zenbait elementu ondo jantzen ikastea.

* Neskek eta mutilek trebetasunezko eta mugimenduzko ekintza fisikoetan elkar baldintza berdinetan parte hartzea, kirol gehienetan sexuen arteko potentzi ezberdintasunak neskei ematen dien desabantailarik gabe, mutilek heuren buruan nesken gaitasun fisikoa dignifika dezaten.

* Egindako ahalegina eta ekintza atsegina izatea lortutako emaitza eta konpetibitatea baino gehiago baloratzen ikastea.

* Bakoitzaren gaitasunaren, ahaleginaren eta interpretazioaren ezberdintasunak errespetatzen ikastea. Pertsona batek euki dezaken trebetasun falta bategatik ez kritikatzeko ikastea.

* Ekintza fisiko osasuntsuak ondo egitea gorputzaren garapenean eta osasunean duen garrantziaz jabetzea.

* Taldean barnean funtzionatzen ikastea: Eritzi ezberdina errespetatzen ikastea, zentzu demokratikoa onartzea, besteetarekiko erresposabilitateaz jabetzea...

2.1.2. Helburu espezifikoak

2.1.2.1. Lehenengo Hezkuntza

* Ikasleak bere inguru hurbilean praktikan jar ditzaken zenbait dantza kalean egiteko behar duen zihurtasunez ikastea.

* Euskal Folklorearen agerpen garrantzitsuenen ezaugarri orokorrak ezagutzea.

* Euskal Folkloreak Kultur arlo ezberdinak multzotzen eta bateratzen dituela ulertzea.

* Euskal Herriko egitura fisikoaren oinarritzko irudi bat bereganatzea.

* Euskal Herriko Kultur ezaugarrien aniztasunaren oinarritzko ideia bereganatzea.

* Gure Kultura zaintzeko eta transmititzeko bakoitzak daukagun ardura eta protagonismoa ulertzea.

* Herri inguruaren bizimoduaren eta ohituren oinarritzko ezagutza bat lortzea.

* Gorputzari buruzko ezagutza orokor bat lortzea: hiztegia, funtzioak, zainketak...

* Norberaren gorputzaren trebetasunen erabilpena eta menperaketa sendotzea.

* Ikasleak bere Herriarekiko eta bizi den ingurunearekiko identifikazio lortzea.

* Testuaz lan egiteko eta ikasteko oinarritzko teknikak erabiltzen eta menperatzen ikastea.

* Gure Gizarteak bizi izan dituen azkenengo mendeetako giza eta ekonomi aldaketak ezagutzea.

* Ikasleen arteko giza-harreman egokiak ezartzea: Elkarkidetzatza bultzatzea, hezkidetzatza lortzea, ezberdintasun eta berezitasunetarekiko errespetoa lortzea, elkarrenganako erresposabilitateaz...

* Publikoan aritzeko lotsa galtzea.

* Euskal musikari buruzko oinarritzko ezagutza bat lortzea.

* Ikaslearen ingururako baliogarria izan daiteken bide hezkuntza bat lantzea.

* Eskulangintzarako erabilgarriak izan daitezke oinarritzko materialeen eta tekniken ezagutza lortzea.

* Euskal jolasaren bat eguneroko jolasen artean praktikan jartzen lortzea.

* Euskal janzkeraren buruzko ezagutza orokor bat lortzea.

* Inguruko kultur ekintzetan parte hartzeko aktiboa izateko ohitura sortzea.

* Norberaren hobetze-lanaren kontzientzia sortzea, Kompetibitate gabeko ariketa edo ekintza fisikoetan parte hartzea.

* Antzespen bat egiterakoan erabili daitezken antzespen teknikak eta elementuak ezagutzea eta erabiltzea.

2.1.2.2. Bigarren hezkuntza

* Euskal janzkeraren elementurik tipikoena ondo jantzen ikastea: gerrikoak, abarkak, abarketak, buruzapiak... Euskal Herriko lurralde ezberdinetako jantziak ezagutzea.

* Euskal Kulturaren edozein agerpena (Kirolak, Bertsolaritza, Dantza, Artea...) ulertzeko eta zentzu kritikoaz aztertze beharrezkoak diren edukiak bereganatzea.

* Euskal apaingarrizko ikur garrantzitsuenak ezagutzea eta beraien agerpen garrantzitsuenak egiteko oinarritzko teknikak ezagutzea eta lantzea: brodatzea eta egurra lantzea.

* Ekintza konplexuak egiteko behar diren lanak ulertzen eta aurrera eramaten ikastea: planifikazioa, antolatze-organigramak, kontabilitatea, lege baldintzak,...

* Euskal Kulturaren existentziarako norberak dituen edukiak praktikan jartzea eta transmititzeak duten garrantziaz ohartzea.

* Euskal Historiaren unerik garrantzitsuenak ulertzea.

* Munduko kultur-enborrik garrantzitsuenen kokapena ezagutzea. Sinezkizun ezberdinen oinarriak ezagutzea. Arraza, Kultur edo sinezkizun ezberdinetarekiko errespetoa bereganatzea.

* Euskal Herri Kirolak ezagutzea eta praktikatzeko.

* Bertsolaritzaren oinarritzko ezaugarriak eta teknikak ezagutzea eta praktikan jartzea.

* Azkenengo mendeetako aldaketa sozio-ekonomikoak Euskal Kulturari egindako eragina ulertzea.

* Euskal Herriko gaur egungo egoera sozio-politikoaren ezaugarriak eta zergatiak ezagutzea eta ulertzea.

* Kultur eta kirol ekintza eta erakundetan parte hartzeko gogoia eta nahia garatzea.

* Lan teknikoak eta ikasteko beharrezkoak diren dokumentazio, azterketa, planifikazio, aurkezpen eta abarreko teknikak menperatzea.

* Euskal Herriko egitura sozio-ekonomikoa ezagutzea.

* Ikasleak eskolaren barneko ekintzetan parte hartzeko eta antolatzaile bezala parte hartzea.

* Eskulangintzaren oinarritzko teknikak ezagutzea: otargintza, ehungintza, bordaketa,...

* Herri medikuntzaren sendagairik erabilgarrienak ezagutzea.

2.2. Folklore hezkuntzarekin erlazionatzeko proposatutako edukiak

Ondoren agertzen den edukien zerrenda ez dugu zikloka edo mailaka sekuentzializaturik, etapaka baizik.

Erreformaren Hezkuntza proiektuak Ikastetxe bakoitzaren barnean uzten du curriculum eta programaketa osatuko duten edukien azkenengo antolaketa eta sekuentzia. Honek dakarren flexibilitatean oinarriturik, guk lan honetan irakasle-goari programaketa eta curriculum hoiek egiterakoan Euskal *Dantza eta Folklore integratzeko ideia eta oinarritzko materialak eskeini nahi dizkiogu, geroago eskola bakoitzean etapako irakasle-taldeak bere ikastetxeko baldintzetara hoberen uste duen eran zikloka eta mailaka sekuentzi, egoki, probetza eta aplikatu ditzan.*

Gure zerrendaren edukiak kontzeptualak dira, etapa bakoitzari dagozkion prozedurazko eta jarrerazko edukiak

“Oinarrizko Curriculum Diseinua” liburuetan nahiko argi agertzen dira-eta. Aurkeztutako eduki kontzeptual hauek oinarriztat edo tresnatzat harturik, irakasle-talde bakoitzak Oinarrizko Curriculum Diseinuan planteiatzen zaizkigun prozedurazko eta jarrerazko edukiak beraiek lortu nahi dituzten helburuetarako egokitu eta sekuentzializatu behar izango ditu.

2.2.1. Lehen hezkuntzan folkloreakin erlaziona edo globaliza daitezken edukiak

2.2.1.1. Gorputz Hezkuntza

BLOKEA: EUSKAL DANTZAK (PROZEDURAK)

BLOKEA: GORPUTZA, IRUDIAETA PERZEPZIOA (PROZEDURAK)

BLOKEA: TREBETASUNAK (PROZEDURAK)

BLOKEA: ADIERAZPIDE ETA KOMUNIKAZIOA (PROZEDURAK)

BLOKEA: JOLASA (PROZEDURAK)

2.2.1.2. Inguru Natural eta Sozialaren ezaguera

BLOKEA: HERRI INGURUA

- Poblamiento motak
- Nekazal lanak: nekazal egutegia
- Nekazal tresnak eta beraien funtzioak
- Etxeko abereak
- Janzkera
- Hauzo lana
- Baserriaren elementuak eta funtzioak
- Nekazal ohitura edo tradizioak

BLOKEA: GIZA GORPUTZA

- Gorputzaren zatiak
- Gorputzaren organuak eta funtzioak
- Hezurdura
- Giharreak
- Arnasketa
- Odola
- Zentzumenak
- Gorputzaren zainketa
- Elikadura orekatua
- Neurri prebentiboak
- Neurri terapeutikoak
- Gorputzaren aldaketak bizitzan zehar

BLOKEA: GURE INGURUNEA

- Euskal Herriko Geografia Fisikoa
- Kokapena
- Erliebea (ibaiek, mendiak...)
- Isurialdeak
- Klimak
- Euskal Herriko Giza Geografia
- Lurraldeak, eskualdeak
- Hiriak, herriak, hauzoak
- Lanbideak
- Hizkuntzak
- Gure Herria
- Geografia
- Historia
- Ikurrak: bandera, harmarria...
- Ospakizunak

BLOKEA: GURE HERRIKO OHITURA ETA OSPAKIZUNAK

- Tradizio garrantzitsuak
- Agate Deuna
- Ihauteriak
- Aste Santua

- Gorputzi eguna
- San Juan suak
- Herriko jaiak, azoka edo feriak
- Eguberria
- Olentzero eta Erregeak
- Maiak

BLOKEA: KARTOGRAFIA

- Mapa fisikoak
- Biztanleri mapak

2.2.1.3. Matematikak

BLOKEA: AINTZINAKO NEURRI SISTEMAK

- Bolumen neurriak
- Pisu neurriak
- Luzera neurriak

BLOKEA: FORMA GEOMETRIKOAK

BLOKEA: DENBORA NEURRIAK

BLOKEA: PLANOAK

- Simetriak
- Lerro paraleloak, perpendikularrak

2.2.1.4. Hizkuntzak

BLOKEA: HIZTEGIA

- Basernaren zatiak
- Nekazal tresnak
- Nekazal lanak
- Abereak
- Gorputzaren zatiak eta organuak
- Jantziak

EUSKARA, BLOKEA: BERTSOLARITZA

- Puntua eta neurria
- Zortzikoen melodiak
- Koplak

2.2.1.5. Musika

BLOKEA: ABESTIAK

- Ohizko abestiak:
- Olentzero
- Sta. Ageda
- Ihauteri koplak
- Jolas kantak
- “Canon”-a

BLOKEA: EUSKAL MUSIKA TRESNAK

- Txistu, Silbote, Txirula, Danbolina, Atabala
- Gaita, Danborra, Dultzaina, Txanbela
- Trikitixa, Alboka, Panderoa, Txaramelak
- Txalaparta, Tobera
- Fanfarrea
- Xirularrua, Xarrabetea
- Kastamuelak

BLOKEA: GORPUTZA MUSIKA TRESNA

- Txaloak
- Kriskitinak
- Kantua:
- Jota, Arin-arin
- Jolas Dantzak (Aldapeko, Txakolin,...)

BLOKEA: MUSIKA ERRITMOAK

- 2/4
- 3/4
- 4/4
- 6/8

2.2.1.6. Erljioa

BLOKEA: ERLIJIO EZBERDINAK

- Munduko Sineskizun aniztasuna
- Ikur ezberdinak
- Tradizio ezberdinak
- Errito ezberdinak
- Jantziak eta osagarriak

BLOKEA: GURE INGURUNeko ERRITOAK GAUR EGUN ETA ANTZINA

- Bataioak
- Jaunartzea
- Ezkontzak
- Hiletak
- Aste Santua
- Eguberria
- Garisuma

2.2.1.7. Arte hezkuntza

BLOKEA: HORMAIRUDI ETA MAPEN ERAIKETA

BLOKEA: EUSKAL OHIZKO APAINGARRIAK

BLOKEA: ZERAMIKA

- Moldaketa
- Tresneria
- Apainketa teknikak:
- Margoa
- Esmaltea
- Grabadu edo marrazketa
- Egosketa

BLOKEA: ESKULANGINTZA (MANUALIDADEAK)

- Artaziak, labana, kutxila,...
- Kartulina, papera, kartoia
- Larrua, fieltroa, ohialak...
- Kola

BLOKEA: MARGOGINTZA

- Margo solidoak: arkatzak, zerak
- Akwarela
- Tenpera

BLOKEA: DRAMATIZAZIOA

- Antzeztokia:
- Estzenatokia:
- Dekorazioak
- Atrezzoak
- Tramoia
- Makilajea
- Janzkera
- Abarkak, abarketak
- Buruzapiak
- Gerrikoak

2.2.1.8. Eskolako Hezkuntza Proiektua

BLOKEA: AGATE DEUNAREN TRADIZIOAREN MUNTAKETA

BLOKEA: LANTZEKO IHAUTERIAREN MUNTAKETA

BLOKEA: JOLAS DANTZEN ANTZESPENAREN MUNTAKETA

BLOKEA: ESKOLAKO JAIETAN IKASITAKO DANTZAK DANTZATZEA.

BLOKEA: JOLASTORDUETAN IKASITAKO JOLAS DANTZAK ERABILTZEA.

2.2.2. Bigarren hezkuntzan folkloreakin erlaziona edo globaliza daitezken edukiak

2.2.2.1. Gorputz Hezkuntza

BLOKEA: HERRI KIROLAK

BLOKEA: EUSKAL DANTZAK

BLOKEA: EGOERA FISIKOA (PROZEDURAK)

BLOKEA: MUGIMENDUZKO GAITASUNAK, BANAKAKO JOLASAK

BLOKEA: TALDEKAKO JOLASAK

BLOKEA: GORPUTZ ADIERAZPIDEA

2.2.2.2. Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

BLOKEA: EUSKAL HERRIKO KLIMA

BLOKEA: GURE HERRIKO OHITURA ETA OSPAKIZUNAK

- Tradizio garrantzitsuak
- Agate Deuna
- Ihauteriak
- Aste Santua
- Gorputzi eguna
- San Juan suak
- Herriko jaiak
- Azoka edo feriak
- Eguberria
- Olentzero eta Erregeak

BLOKEA: MUNDUKO KULTUR-LURRALDE GARRANTZITSUAK:

- Kultur enborrak
- Hizkuntzak
- Erljioak
- Arrazak

BLOKEA: EUSKAL HERRIKO HISTORIA

BLOKEA: EUSKAL HERRIAREN AZKENENGO ALDAKETAK:

- Aldaketa ekonomikoak:
- Industria / Nekazaritza
- Gizarte aldaketak:
- Migrazioak
- Emakumearen papera
- Euskal Kulturaren krisialdia
- Aldaketa politikoak:
- Foru sistema
- Nazionalismoa

BLOKEA: EUSKAL HERRIKO ERREALIDADEA

- Ekonomia:
- Sektore ekonomikoak
- Industrial birmoldaketa
- Gizartea:
- Langabezia
- Zahartze prozesua
- Elebitasuna
- Politika:
- Euskadi / Nafarroa / Iparralde
- Espainia / Euskal Herria

BLOKEA: ERAKUNDE POLITIKOAK

- Udala
- Aldundia
- Autonomi-erakundeak
- Estadu-erakundeak

BLOKEA: KARTOGRAFIA

- Mapa ekonomikoak
- Mapa politikoak

BLOKEA: GRAFIKOAK

2.2.2.3. Matematika

BLOKEA: AINTZINAKO NEURRI SISTEMAK

- Bolumen neurriak
- Pisu neurriak
- Luzera neurriak

BLOKEA: HIRUKO ERREGELA (grafiko eta ehunekoei egokiturik)

BLOKEA: SIMETRIAK, PLANOAK...

BLOKEA: OINARRIZKO KONTABILIDADEA

2.2.2.4. Hizkuntzak

BLOKEA, EUSKARA: BERTSOLARITZA

- Bertso paperak
- Bapateko bertsoak
- Bertsosaio ezberdinak

BLOKEA, EUSKARA: DIALEKTOLOGIA

BLOKEA: FOLKLORE HIZTEGIA

2.2.2.5. Musika

BLOKEA: EUSKAL MUSIKA TRESNAK

- Txistu, Silbote, Txirula, Danbolina, Atabala
- Gaita, Danborra, Dultzaina, Txanbela
- Trikitixa, Alboka, Panderoa, Txaramelak
- Txalaparta, Tobera
- Fanfarrea
- Xirularrua, Xarrabetea
- Kastainuelak

BLOKEA: EUSKAL MUSIKA

- Konpositoreak
- Obrak

BLOKEA: MUSIKA FOLKLOREA

2.2.2.6. Ertlijioa

BLOKEA: MUNDUKO ERLIJOAK

BLOKEA: PAGANISMOTIK KRISTAUTASUNAK MOLDATUTAKO ERRITOAK

2.2.2.7. Plastika, Ikus Hezkuntza, Oinarrizko Teknologia

BLOKEA: ZUMETZA / OTARGINTZA

BLOKEA: EHUNGINTZA

- Telareak
- Bordadoa
- Makramea

BLOKEA: EGURGINTZA

- Zerraren erabilpena
- Apainketa teknikak:
- Labana
- Gubia

BLOKEA: EUSKAL JANZKERA

BLOKEA: MARRAZKETA

BLOKEA: IKUS-ENTZUTEKO LANAK

- Tresneria
- gidoia, produkzioa...
- Irudia
- Soinua

BLOKEA: DISEINUA

2.2.2.8. Natur Zientziak

BLOKEA: LANDAREAK

- Elikadurarako landareak
- Senda belarrak

BLOKEA: GORPUTZAREN EZAGUTZA

- Elikadura eta Liseriketa
- Sexualidadea
- Infekzioak
- Traumatologia

2.2.2.9. Eskolako Hezkuntza Proiektua

BLOKEA: ERAKUSKETEN ANTOLAKETA

BLOKEA: IKASLE TXIKIENTZAKO OLENTZEROAREN ANTOLAKETA

BLOKEA: KALEAN SANTA AGEDAREN ANTOLAKETA


BLOKEA: EUSKAL JAIEN ANTOLAKETA

BLOKEA: PUBLIZIDADE EKINTZEN ANTOLAKETA


2.3. Globalizazio ereduak

2.3.1. Dantza bat edo batzu lantzeko ereduak


2.3.1.1. Globalizazio orokor baten ereduak



2.3.1.2. Arlo batetan (Gizarte Zientziak) oinarritutako globalizazioaren eredua




2.3.1.3. Arlo batetan (Plastika eta Ikus Hezkuntza) oinarritutako globalizazio baten eredua



2.3.2 Unidate Didaktikoaren eredua

Unidate Didaktikoa: Lantz-eko Ihauteria



UNIDATE DIDAKTIKOAREN GARAPENA

ESKOLAKO HEZKUNTZ PROIEKTUA
<p>Proiektua: Euskal kulturaren ekintza bat (Lantzeko ihauteria) eskolan antolatzea eta muntatzea, ihauteri garaian eskolan bertan eta Herriko kaleetan zehar aurkezteko. Euskal ihauteria gaia bezala arlo ezberdinetan landuz eta eskola eta Herriko jendeari aurkeztu ahal zaizkion kultur zabalkunde materialeak sortuz eta kaleratuz.</p> <p>Laguntza ekonomikoak: Eskolak urte urte erabili daitezken elementuak (Miel Otxinen hezurdura eta jantziak, sakuak, pertza, zaldikoa...), kultur zabalkunderako behar diren materialeak (fotokopiak, kortozko panela...) eta posible izan daitekeen irteeraren bat ordaindu beharko ditu. Koordinazio lanak: Ikasle beraiek eskeini edo sortu ezin dituzten beharrezko oinarriak (txistulariak, dantza irakasleak, bibliografia, baimena publikoak, Herriko erakundeetarekiko erlazioak...) eskolako estruktura bete edo erreztu beharko ditu.</p> <p>Irakaslegoa: Eskolako irakasle taldeak proiektuaren sakontasun maila, edukiak, denbora, globalizazio eta ebaluaketa sistemak zehaztu beharko ditu. Antzespeneraren eguna, lekua, orduak, arduradunak... Gorpuz hezkuntzaren irakasleak ikasi beharrekiko dantzak menperatu beharko ditu.</p>
HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> * Taldeko ekintza global bat prestatzea, dokumentatzea eta publikoaren aurrean aurkezteak. * Ihauteriaren zentzu orokorraz jabetzea. Herri eta Hiri ihauteriaren ezaugarri ezberdinak ezagutzea. Euskal Herriko ihauteri garrantzitsuenen formak identifikatzea. * Testuetarekiko lan teknikak lantzea: Azpimarraketa, laburpena, eskematizazioa... * Idazlanak egiteko teknikak lantzea: Dokumentazioa, lan eskema, mapa kontzeptuala, maketazioa... * Hiztegia aberastea. * Taldeko barne harremanak handitzea. Eritzi ezberdinak positiboki eztabaidatzen eta errespetatzen ikastea. Demokratikoki hartutako erabakiak onartzen eta betetzen ikastea. * Euskal Dantza batzu ikastea. Ikasitako dantzak kalean praktikatzea. * Gure ohiturak gureganatzea. Kultur tradizioa mantentzen eta zabaltzen parte hartzaile aktiboak izatea. * Kalean euskaraz hitz egitea. * Gure lanaren bidez kultura zabaltzea.

ZEHAR LERROAK
<p>* HEZKIDETZA: Neskek eta mutilek aktibitate fisikoetan berdinki ekitea. Antzespeneraren erroak berdinki banatzea. Hiztegi egokia erabiltzea.</p> <p>* KONTSUMOA ETA EKOLOGIA: Ahal den neurrian norberak egindakoak eta erreziklaiaz egindako materialeek erositakoak ordezkatzeko.</p> <p>* BIDE HEZIKETA: Kalean ekintza bat egiterakoan istripuak edota molestiak ebitatzeko hartu beharreko prebentzioak. Eskola inguruko seinalizazioa.</p> <p>* ZENTZU DEMOKRATIKOA: Eritzi eta proposapen ezberdinetarekiko errespetoa. Sistema demokratikoa erabakiak hartzeko (rolak, hormairudien kokapena, ibilbidea...)</p> <p>* GIZA ESKUBIDEAK ETA BAKE HEZIKETA: Trebetasun gutxiko jendea ez baztertzeko. Antzespenean ager daitezken bortxakerizko sinbologia biguntzea (zaldikoaren erasoak, Miel Otxinen heriotza, txatxoaren joerak...).</p> <p>* KOMUNIKABIDEAK: Egindako kultur zabalkunde materialeak jende aurrean aurkeztea. Kalean ekintzaren argibideak ematea.</p> <p>* GORPUTZAREN ZAINKETA: Gorputzarako komenigarriak diren ekintzetan parte hartzea. Gorputzarekiko ohizko sendagailuen ezagupena...</p>

GORPUTZ HEZKUNTZA
EDUKIAK
<p>EDUKI KONTZEPTUALAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Dantzak: Baztango zortzikoa, Jota, Arin-arin. * Espazioa eta denborarekiko egokipena. * Hanka eta besoen mugimendu bateratuen ezberdinketa. * Motrizidatearen oinarriko elementuak: birak, saltoak, oreka... * Adierazpena: mugimendua eta keinua. <p>PROZEDURAZKO EDUKIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Dantzak: Baztango zortzikoa, Jota eta Arin-arin. * Mugimenduen analisisa eta deskonposaketa. * Norberaren mugimenduak burutu behar ditugun espazioa eta denborarekiko egokiketa. * Norberaren mugimenduak batera egiten dituen beste pertsonen mugimenduetarekiko egokipena. * Beso eta hanken mugimenduen disoziazioa kontrolatua. * Dantzak eskeintzen dituen mugimenduzko oinarrien koordinaziozko buruketa. * Dantza egitean mugimendu eta keinuaren erabilpen adierazgarria. <p>JARRERAZKO EDUKIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Azalpenak entzuteko eta ulertzeko ixiltasuna. * Bakoitzaren muga fisikoei aurre ekintza. * Egindako ahaleginak emaitzak baino gehiago balorapena. * Bakoitzaren perfektzionatze lana.
EKINTZAK
<ul style="list-style-type: none"> * Lantzeko Zortzikoaren, Jota eta Arin-arin bideoa ikusi. * Dantzaren urratsak deskonposatu eta irakatsi. * Errepikapena eta saiakeraren bidez dantza muntatu. * Musikaren laguntzaz dantza entseiatu eta perfektzionatu.
MATERIALEAK
<ul style="list-style-type: none"> * Bideoa: Lantzeko zortzikoa, Jota eta Arin-arin.

MUSIKA
EDUKIAK
<p>EDUKI KONTZEPTUALAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Musika laguntzeko erabili ditzakegun tresnak: Krikitinak, kasta-nuelak, txaramelak, anis botila, marakak, bongoak... * Jota eta Arin-arin erritmoak. * Jota eta Arin-arin batzuren hitzak. <p>PROZEDURAZKO EDUKIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Eduki kontzeptualetan dauden tresnen funtzionamendua. * Ahotsaren arnasketa, artikulazioa eta adierazpenaren kontrola eta hobekuntza. * Antzezpenean egoerak laguntzeko musika tresna eta abotsaren erabilpena. * Jotzeko eta abesteko koordinazioa. * Musika tresnen sorketa. * Musika forma baten azterketa (Jota, Arin-arin). <p>JARRERAZKO EDUKIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Klasean musika tresnak seriotasunez erabilpena. * Taldekako lanetan partaidetza aktiboa. * Publikoaren (klasearen aurrean) lotsaren galera. * Besteenganako errespetoa, ahaleginaren balorapena. * Norberaren gaitasuna perfektzionatzeko lana.
EKINTZAK
<ul style="list-style-type: none"> * Krikitinak zelan egiten diren azaldu. * Kastainuela eta Txaramelen funtzionamendua azaldu. * Euskal Herriko mapan kastainuela erabiltzen diren lekuak seinatu. * Munduko eta Euskal erritmoa eta abestien bidez krikitinak, kastainuelak, botila... erabiltzen praktikatu. * Jota batzu taldeka abestu. * Euskara arloan asmatutako jota edo Arin-arinak banaka abestu.
MATERIALEAK
<ul style="list-style-type: none"> * Jota eta Arin-arin batzuren hitzak eta musika zintak. * Munduko folklore musikak * Txaramelak, Kastainuelak, Anis botilak... * Marakak, bongoak, txinatar kutxak... * Euskal Herriko mapa mutuak.

HIZKUNTZAK
EDUKIAK
<p>EDUKI KONTZEPTUALAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Ihauteriari buruzko hiztegia. * Euskara: Bertsolaritza. * Gaztelania: "Usted/ustedes" tratamendua. * Ahozko eta idatzizko azalpena eta deskribapena. <p>PROZEDURAZKO EDUKIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Dokumentazio lana. * Eztabaida/debatea: Partehartze ordenatua, eritzien errespetoa, ahozkapena.. * Testuak lantzeko teknikak: Azpimarraketa, laburpena eta eske-matizazioa. * Idazlanak erakitzeko teknikak: Dokumentazioa, mapa kontzeptuala, aurkezpenaren maketazioa...

<ul style="list-style-type: none"> * Hiztegiaren erabilpena. * Koadro konparatiboen teknika. * Kartelak eta hormairudiak egiteko teknikak <p>JARRERAZKO EDUKIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Klaseko partaidetza. * Eguneroko lan plangintza. * Gaia ikertzeko eta zabaltzeko gogoia. * Etxeko materialean informazioa bilatzeko ohitura. * Lortutako kultur edukiak zabaltzeko ohitura.
EKINTZAK
<ul style="list-style-type: none"> * Euskara edo Lenguaje arloetan Ihafteriari buruzko hitzen zerrenda luze bat egin. Beste Hizkuntzetan hitz hoiak bilatu eta guztiak erabiliz tabla bat eraiki eta jarri horman. * Lenguaje: Ikasleen artean Usted/ustedes formak erabiliz eztabaidak antolatu, ekintzari buruzko ideiak proposatzeko, paper ezberdinak banatzeko... * Euskara eta Lenguaje: Ihafteriari buruz dokumentatu eta lortutako materialez (eta irakasleak emandakoaz) idazlan bat prestatu, irudi ta guztiz... * Guztion artean partehartzearen bidez Lantzeko ihafteriaren azalpen deskriptibo labur bat egin, antzespina kalean egiten den bitartean jendeari banatzeko. _ * Euskara Jota edo Arin-arin baten hitzak asmatu, bertsolaritzaren arauak errespetatu.
MATERIALEAK
<ul style="list-style-type: none"> * Ihafteriari buruzko testuak. * Lantzeko Ihafteriaren irudiak, argazkiak. * Erreziklaia materialeak: kartulinak, kartoiak.

ERLIJIOA
EDUKIAK
<p>EDUKI KONTZEPTUALAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Ihafteriaren eta erlijioaren paralelismoak, santu babesleak. * Gure inguruko Garizuma eta Aste Santua. * Beste erlijioetariko paralelismoak. * Munduko Erlijioak: Naturista/animistak, politeistak, monoteistak. <p>PROZEDURAZKO EDUKIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Dokumentazio lana. * Idazlanak egiteko teknikak. * Testuak lantzeko teknikak. * Koadro konparatiboak egiteko teknikak. * Kartelak eta hormairudiak egiteko teknikak. <p>JARRERAZKO EDUKIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Sineskizun edo sineskizun eza ezberdinetarako errespetoa. * Munduko kultur eta erlijio aniztasunaren ulermena. * Etxeko liburuetan informazioa bilatzeko ohitura. * Kultura zabaltzeko ohituraren lanketa.

EKINTZAK
<ul style="list-style-type: none"> * Garisuma eta Aste Santuari buruzko informazioa bilatu eta lortutako materialeak, ospakizun bakoitzaren deskribapen eta sineskizuna azaldu hormairudietan, testu eta irudien bidez. * Santu babesleen zerrenda eta egutegia eraiki. * Erlijio ezberdinen izatea aztertu eta dokumentatu. Lortutako materialeak mapa mundi batetan erlijiorik garrantzitsuenak kokatu eta bakoitzaren ospakizunak, ezaugarriak eta ikurrak klasifikatu tabla bat eraiki * Egingandako hormairudiak eskolako leku ikusgarrietan jarri, kultura zabaltzeko. MATERIALEAK * Erlijio ezberdinei buruzko testuak.

ARTE HEZKUNTZA
EDUKIAK
<p>EDUKI KONTZEPTUALAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Margo ezberdinak. * Kola ezberdinak. <p>PROZEDURAZKO EDUKIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Temperaren erabilpena. * Oinarrizko koloreak eta kolore sekundarioak. * Pintzelaren erabilpena. * Koloreen nahasketa. * Kola ezberdinen erabilpena. * Egin beharreko lanen aurre-programaketa. * Paper-pastaren erabilpena. <p>JARRERAZKO EDUKIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> * Erreziklaje-materialen erabilpena. * Elkar laguntzaren elkartrukaketa. * Tradizioaren agerpen eta arauetarekiko errespetoa.
EKINTZAK
<ul style="list-style-type: none"> * Lantzeko txatxoaren jantzien osagarriak egin: txanoak, sardak, erratzak... * Erreziklaia bidez lortutako paper-pastaz Miel Otxinen burua eta eskuak egin. * Lantzeko ihafteriaren posterra tenpera eta pintzelaz margoztu: <ul style="list-style-type: none"> — Ikasle bakoitzak irudi bat margoztu eta karpeteraren bat forratu. — Guztion artean irudi handi bat edo batzu, gelako edo eskolako hormetan jartzeko. * Kartoiak "stop" eta "kontuz!, haurrak" seinale pare baria egin eta tenperaz margoztu, kaleko antzespenean erabiltzeko.
MATERIALEAK
<ul style="list-style-type: none"> * Kolore ezberdinetako sedazko paperak. * Txatxoaren irudiak, eredu bezala erabiltzeko. * Lantzeko ihafteriaren antzespenearen irudiorokorra, Din A-3 eta poster tamainakoak. * Erreziklatzeko paperak, kartulinak, kartoiak kutxak... * Kola ezberdinak. * Tenperak eta pintzelak.

MATEMATIKAK
EDUKIAK
EDUKI KONTZEPTUALAK: * Neurri sistema ezberdinak: — Pisua. — Luzera. — Bolumena. * Geometria: zirkunferentzia eta zirkulua. PROZEDURAZKO EDUKIAK: * Neurri sistema ezberdinen arteko bihurtetarako. * Konpasaren erabilpena. * Zirkunferentzia eta zirkuluaren formularen erabilpena. ARRERAZKO EDUKIAK: * Nazioarteko neurri sistemen garrantziaren ulermena. * Eguneroko lanen antolaketaren ohitura. * Marrazki lanetarako txukuntasuna.
EKINTZAK
* Antzinako neurrien eta gaur egungo neurrien taula konparatiboa eraikitzea. * Neurri sistema ezberdinen arteko bihurtetara ariketak egitea eta zuzentzea. * Zirkunferentzia eta zirkuluaren elementuak aztertzea eta konpasaren bidez marraztea. * Zirkunferentzia eta zirkuluaren elementuen formulak lantzea.
MATERIALEAK
* Konpasa. * Neurri sistema ezberdineko neurgailuak: erregelek, baskulak...

INGURUNEAREN EZAGUTZA
EDUKIAK
EDUKI KONTZEPTUALAK: * Ihautea: ezaugarriak, esanahaiak, forma, kokapena, historia... * Kosmografia: Errotazioa eta Translazioa. * Klima: Urtaro ezberdinen zergatia. * Gure Herria: — Hauzoak. — Kaleak. — Trafikoa. * Trafiko seinaleak. PROZEDURAZKO EDUKIAK: * Testuak lantzeko teknikak: Azpimarraketa, laburpena... * Kartografia: Mapa grafikoak, kale planoak... * Ikasteko/erantzuteko metodoak. * Eguneroko lanen planifikazioa. * Azalpen grafikoak. * Hormairudiak. JARRERAZKO EDUKIAK: * Eguneroko eginbeharrak egitearen sistematizazioa. * Ingurune hurbilarekiko hurbiltzea.

* Euskal Herriaren kultur nortasunarekiko identifikazioa. * Tradizioaren arauak mantentzearen garrantziaren ulermena. * Lortutako kultur edukiak zabaltzeko ohitura sormena.
EKINTZAK
* Euskal Ihauteari buruzko bideoak ikusi. * Ihautearen testuak landu: azpimarratu, gakoak seinalatu, sustrai historikoak analizatu, Historiaren zeharrekiko aldaketak aztertu. * Ihauteari garaiak aztertu: Urtaroak, zergatik gertatzen diren, Errotazioa eta Translazioaren eragina... * Euskal Herriko ihautearen mapa egin, lurraldeak eta ihautearen pertsonaiak konbinatu. * Herrian dauden trafiko seinale bilduma bat egin eta klasean bakoitza marraztu bere esanahiarekin batera. * Kaleko antzespenaren gidoi zehatza egin eta beharrezko lan eta behar guztien planifikazioa zehatza.
MATERIALEAK
* Euskal ihautearen pertsonaien irudiak. * Ihauteari buruzko testuak. * Herriaren planoak. * Euskal Ihautearen bideoak. * Erreziklari materialeak: kartulina, kartoia...

3. BALIABIDE METODOLOGIKOAK

3.1. Irakasleagoa

Folklorearen arloak hain zabalak izateak eta komunitate bakoitzak dituen berezitasunei moldaturik egoteak *zaila egiten dute eskola guztietarako baliogarria izan daitekeen eredu bakar bat egitea*. Horregatik, Folkloreak eskolara eramateko asmoa errealitate bihurtzeko *eskola bakoitzaren irakaslearen lan zuzena izan behar du*, eskola bakoitzak Folklorearen Hezkuntzari eskeiniko dizkion denborak, sakontasunak eta ekintzek proiektu osoaren nortasuna eta izaera baldintzatuko dituztelako.

Irakasleagoaren aldetik, Folkloreari buruzko edozein proiektu praktikara eramanez aurretik, gaiari buruz irakasleagoan orokorrean dagoen jakineza kontutan hartu behar dugu. Jakineza horrek Folklorearen eskolara sarrera zailago egin edo galerazi dezake, beraz, hori izango litzateke normalean gaitu beharrekiko lehenengo hotsuak.

Eskolan daukagun jakineza hori gaitzeko bide batzu zabal daitezke:

— Hezkuntz Erakundeek bereziki antola litezkeen ikastaroak.

— Interesdun irakasleek "Euskal Dantzarien Biltzarra"-k urtero antolatzen dituen ikastaroan (dantza taldekideei zuzendurik) parte hartzea.

— Eskualde guztietan dauden Dantza Taldeen laguntza teknikoak eskatzea (kontutan harturik Dantza Talde gehienek helburuetan Folklore-Kultura zabaltzea egiten dela, eta Dantza Taldeak bereak direla gazteak Dantza eta Folklorearen bidean has daitezkeen interes gehien daukatenak)...

Lehendabiziko (eta garrantzitsuen den) hotsu hori gaitzeko edo mugatu ondoren, egin nahi dugun lan pedagogikoa dator: *Eskola bakoitzak landuko dituen helburuak, edukiak eta ekintzak zehatza eta Eskolaren Curriculum-ean kokatu behar dituzte, Unidade Didaktikoak eraikitzen edo/ta Hezkuntz Proiektuaren ekintza bereziak prestatuz.*

3.2. Ikastetxeko hezkuntz proiektua

Folklorearen talde-adierazpideen izaerak kanpora agertzeko joera darama: talde ekintza guztiak publikoan agertzekoak dira (plazan, elizan, lagun-artean...). *Ikastetxeko Hezkuntz Proiektuak izaera hori kontutan hartu beharko luke eta Folklorearen garatzeko marko egoki bat eskeini behar izango luke, batez ere, ekintza bereziak bultzatuz: Olentzeroa, Ihauteriak, Jaiak, Aste Kulturak, Erakusketak, Santa Ageda...*

Ekintza berezi hauen antolaketa arako infraestruturak eskolaren errete behar izango luke: finantziatzea, materialeak, inguruko erakunde eta Kultur Elkarteetarekiko harremanak, musikoak, publikitate eta kultur zabalkunderako bideak...

Eskolako Hezkuntz Proiektuak Folklorearen lantzen duten beste eskoletarekiko elkartrukeak bultzatu beharko lituzke. *Eskolen arteko kooperazio oso aberasgarria izan daiteke folklorea ekintzen zabalkuntzerako.*

Unidade Didaktiko ezberdinak lantzen dituzten eskolen arteko elkartrukeak folklorea agerpenen ezagutza praktikoa biderka dezakete. Suposatuko luketen motibazioaz gain, ikasleei folklorea ekintza gehiago ezagutzeko aukera ematen die, Folklores zerbait bizi bihurtzen dute, norberarekiko barmaketa erretzen dute...

3.3. Materialeak

Folklore-proiektu bat aurrera eramateko behar den *materialen zerrenda eskola bakoitzak diseinatutako proiektuen arauera zehaztu beharko litzateke.*

Aurkeztu dugun proiektu honetan agertzen diren dantza eta ekintzetarako behar diren gutxiengo materialeak merkeak eta aurkitzeko errazak dira. Hala ere, Folklorearen Hezkuntzan seriotasun gehiagoz edo sakonago sartu nahi dutenez Administrazioak zenbait materiale eskeini beharko lituzke, zentruetarako egiten dituen materiale eskaintzetan (laborategia, kirola, Plastikak edo Teknologiaarako materiale dagoen bezala).

3.4. Laguntza teknikoak

Proiektu honetan zehar batzutan aipatu dugu Folkloreak buruz irakaslegoan dagoen jakineza. Jakineza hori gaitzeko Hezkuntz Administrazioak bete ahal izango lituzken lanak oinarrikoa lirateke: ikastaroak, birziklaiak, testuak eta irudiak argitaratzea, Unidade Didaktikoak prestatzea... Baina gaur egun hori ez da existitzen eta daukagun errealidadera itzuli behar dugu.

Norbaitek, bere eskolan, Folklore arloan lan egiten hasi nahi izango balu eta *laguntza tekniko eskatzeko beharrezko aurkituko balitz, gure ustez, Dantza Taldeetan eta Euskal Herriko Dantza Taldeen Federazioan ("Euskal Dantzarien Biltzarra") bilatu beharko luke, bai dantzak eta tradizioak ikasteko, bai materialei buruzko edo testu eta musika argitarapenen berriak jasotzeko.*

Jarraian "Euskal Dantzarien Biltzarra"-ren ordezkariak datuak eskeintzen dizkizuegu:

BIZKAIKO EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA

k/ Particular de Euskalduna, 2 bajo
48008 Bilbo; tfnoa: (94) 4432883

GIPUZKOAKO EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA

k/ Eustasio Amilibia, 12 - 1ngo D
20011 Donostia; tfnoa: (943) 460487

IPARRALDEKO EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA

k/ 44, rue Pannecau; 64100 Bayonne; tfnoa: 59597124

ARABAKO EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA

k/ Avda. Estibaliz, 2 - oficinas 3,6,9
01004 Vitoria-Gasteiz; tfnoa: (945) 286085

NAFARROAKO EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA

k/ Descalzos, 72 (bis); Iruña; tfnoa: (948) 212343

BIBLIOGRAFIA

"OINARRIZKO CURRÍCULUM DISEINUA - DERRIGORREZKO LEHEN HEZKUNTZA" Eusko Jaurlaritza

"OINARRIZKO CURRÍCULUM DISEINUA - DERRIGORREZKO BIGARRREN HEZKUNTZA" Eusko Jaurlaritza

"PROPUESTAS DE SECUENCIA, EDUCACION FISICA" Ministerio de Educacion y Ciencia, Ed. Escuela Española S.A.

"OINARRIZKO CURRÍCULUM DISEINUA - ZABALKUNDERAKO AGIRIAK BILDUMA" Eusko Jaurlaritza

"DANZAS VASCAS EN LA ESCUELA" Euskal Dantzarien Biltzarra, Bizkaiko Ordezkaritza

"DANTZARIAK" ALDIZKARI BILDUMA Euskal Dantzarien Biltzarra

"DANTZAK" Juan Antonio Urbeltz, Ed. Lankide Aurrezkie